



AUTONOMIA XEDE

Gazteei aisialdirako aukera emateko helburuarekin
zapatuero elkartzen dira Txolarten 20

**"Badakit
beti alboan
izango
dudala"**

Mercedes
IRAKASLEA ETA
GAES-eko BEZEROA



Silvia GRAIN DELA 7 URTEZATIK
MERCEDESEN AUDIOPROTESISTA

**ENTZUMENA
DOAN**
aztertuko dizugu

JEREZ
CAPITAL MUNDIAL DEL
MOTOCICLISMO
www.jerezmm.es

www.gaes.es

Foruen Ibilbidea, 8
Tel.: 943 15 03 95
azpeitia@gaes.es
AZPEITIA



GAES
Entzumen Zentroak



Smart Retail
sistema berria



AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukera hauetako baten bitartez:

- uztarriabazkidetza@gmail.com
- Telf: 943 15 03 58
- Bulegoko helbidea Helbidea: Perez Arregi 1 behea
- www.uztarria.eus webgunean, Kontaktu formularioa bitartez



egin bazkide

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 182.a (2016ko apirila)

Urtea. XVII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 688883491 / uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilerio

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Olaia Iraola

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Uztarriak
Bai Euskarari



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2016KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Eskolaz kanpo libururik irakurtzen al duzu? **13**

mamia

Kepa Peñagarikano. Pilotari profesionala izana, material hautatzailea da orain **04**
Klik! Sanagustingo kontzertuak, Alberto Belokiren bildumatik **16**

Nagusia. Mikel Aranguren apaizari eta Yon Cuadrado apaizgaiari elkarriketa **20**


jakiteko

Atzera begira. Javier Jauregiren Kimetz ile-apaindegiak 25 urte **34**

Ba al dakizu Loiolako Arrupen 2006an elkarriketak izan zituzteneko mojak bisitatuko dituela Arnaldo otegik? **Uztarria**

Izan uztarriaren bazkide ☎ 943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13** liburu, **CD 1**, **DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

KEPA PEÑAGARIKANO

pilota hautatzailea

“Pilotariak izan behar du protagonista, ez nik”

Azken hamahiru urteetan Juan Mari Juaristi Atano XIII.ak betetako material hautatzaile postua hartu du.

“Gogotsu” dabil erronka berrian. 📧👁️ Ainitze Agirrezabala

Pilotari profesionala izana, suhiltzaile izateko oposaketak prestatu ditu, anbulantziak gidatu, masaje kontsulta zabaldu, Zestoan pilota irakaslea da eta, Binakako Txapelketa hasi zenetik material hautatzailea.

‘Ofizio askoko langilea, pobrea seguru’, dio esaerak.

Nire kasuan bete egiten da, kar, kar, kar. Gauza asko dira baina hautatzailea naizenetik ez dut denbora askorik eta konpromisorik gabe ahal dudanean azaltzen naiz Zestoako pilota eskolara. Anbulantziako lana ere albo batera utzita dut aldi baterako, ordutegiari dagokionez ez da eta bateragarria. Une honetan, hautatzaile lana Zestoan dudanean masaje kontsultarekin uztartzen dut.

Atano XIII.aren postua betetzeko egin zizuten proposamena ezustekoa izan al zen?

Inork ez zuen espero Juan Mari utziko zuenik, lan oso ona egiten ari baitzen baina enpresekin arazoak zituen eta utzi egin zuen. Hautatzaileak bi enpresen gustukoa izan behar du; ni bietan jokatutakoa naiz eta antza, nire izena izan zuten gogoan. Erabakia hartzerako orduan, orde, hausnartu egin nuen. Izan ere, ardura hura hartzeraz beste zeozer utzi beharra nuen eta ez da lan egonkorra. Nire aurrekoak 13 urte egin ditu baina historian bost urte baino gehiago inork ez ditu egin. Bizi guztian pilotan aritu izan naiz orde, eta mundu horretan jarraitzeak asko balio duenez, aurrera

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1981eko otsailak 27.

||| **Herria.** Beizama. ||| **Bizi tokia.** Donostia. ||| **Lanbidea.** Pilota hautatzailea.

egin dut. Alabaina, aterik ez dut itxi nahi izan eta hori ditut masaje kontsulta eta anbulantziako lana.

Pilotari profesionala izana, gauzak beste aldetik ikustea egokitu zaizu orain.

Orain zezena barreraz beste aldetik ikusten dut. Bai, ezberdina da. Pilotaria zarela interes batzuk dituzu; aldiz, orain enpresaren aldean egonda, beste mentalitate bat dut. Diskrezioa izatea eskatu didate. Futbolean arbitroak bezala: niri buruz zenbat eta gutxiago hitz egin, hobeto. Protagonista ez du hautatzaileak izan behar, pilotariak baizik. Pilotariren bat kexa-

tuz gero, ahoa itxi beharko dudala esan didate, polemikarik puztu gabe. Nork jokatzen duen begiratu gabe, pilota ikuskizuna bermatzeko enpresaren irizpideak betetzea da nire egitekoa.

Pilotariak, zaleek eta hedabideek epaitzeko joera dute. Presio handiko lana al da?

Bai. Kristoren partida atera bada pilotariak ikaragarri ondo jokatu dutelako da eta partida txarra izan bada aitzakia pilotak dira eta derrepente zuri begiratzen dizute. Futbolean arbitroagatik kexatzen diren gisan pilotan pilotengatik kexatzen dira. Hori guztia horrela dela onartuta nire lana ahalik eta txukunen egiten saiatzen naiz, nahiz eta egunen batean asmatu ez eta hanka ere sartuko dudana.



Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Orain artean, ona. Hasieran nahikoa polemika izan zen, Bilboko partida baten aurretik, pilota aukeraketan, Olaizola eta Urrutikoe-
txea kexatu ziren pilotak biziak zirelako, baina, gero, kristoren partida jokatu zuten, irabazi egin zuten eta han isildu zen kontua.

Frontoian ahalik eta ikuskitzuz onena izateko garrantzitsua da pilotak egokiak izatea. Nola izaten da hautaketa?

Bi enpresetako pilotariak direnean enpresa bakoitzeko intendenteak etortzen dira pilotak jartzera. Gertatu daiteke lau pilotariak enpresa berekoak izatea ere. Asegarceko Ruben Belokik bere enpresako pilotarientzat jartzen ditu pilotak eta Aspeko Jon Apezetxeak bere enpresakoentzat. Bakoitzak zortzi pilota jartzen ditu; hamasei, guztira. Saski batean nahastuta jartzen dituzte guztiak eta haietatik hamar hautatzen ditut. Probatzen hasten naizenean batzuetan gertatu daiteke 16 horietatik 12 txarrak izatea, ez gustatzea eta saskian lau pilota gertatzea. Orduan, intendente bakoitzari eskatzen diot beste launa pilota berri ekartzeko. Horrela, nire gustuko hamar osatu arte. Partidaren eta pilotarien arabera enpresa bakoitzak bere interesak ditu eta ni hor nago bitartekari bezala. Nire zeregina da mugak kentzea: ikusten badut pilota bat bizi-egia dela ba kendu. Gero, hamar horietatik pilotariak hiruna aukeratzen dituzte eta sei pilota

horiek izango dira partida jokatzeko erabiliko dituztenak.

Eskuzko Pilota Enpresen Ligak hainbat moldaketa egin ditu, egungo beharretara moldatzeko asmoz. Zein dira aldaketa nagusiak?

Lehen, Atanok bazekien pilota bakoitza zer enpresak jarria zen. Horrek zeresana ematen zuen, faboritismoak egon zitezkeelako. Orain, aldiz, ez pilotariak, ez prentsak, ez nik, ez dakigu pilotak zer enpresetakoak diren, eta niretzat abantaila da hori, presio eta polemika gutxiago dut horrela. Bigarren aldaketa izan da piloten zigituak jartzea. Pilota guztiak pisatu ondoren, bikote gorriak aukeratu-
tako pilotak 1, 2 eta 3 zenbakiekin zigitatzen dira kolore gorriz. Gauza bera bikote urdinaren pilotekin. Orduan, partidaren zehar badakite zer pilotarekin ari diren jokatzeko. Lehen, epaileak klarionarekin markatzen zituen pilotak baina nahasgarriagoa zen. Orain, gainera, pilotariak pilota berria aukeratzen dutenean telebistan informazio hori ematen hasi dira.

Zer izan behar da kontuan pilota bat egokia izan dadin?

Lehenbizi, kontutan izan behar dira frontoiaren ezaugarriak. Pilotaleku guztiak desberdinak dira. Gakoak dira: frontisa, harriaren arabera pilota gehiago edo gutxiago ateratzen da; lurra leuna edo zakarra den, gehiago edo gutxiago korritzen du, eta botea ere gehiago hartzen du edo gutxiago. Eta, azkenik, ezker pareta. Pilotak ere era askotakoak daude. Pilotak egiten dituen Punpa enpresak zeinuen bidez sailkatuta ditu pilotak eta frontoiaren ezaugarrien arabera hautatzen ditugu. Zeinu borobila dutenak, esaterako, Labriterako dira. Labritek frontis azkarra du eta pilotak gehiegi ez ateratzeko. Triangeludun pilotak ere badaude, frontisetik gehiago irteten dutenak, Donostiko Atanorako. Ez da %100 eraginkorra, eskuz pilota berdinak egitea zaila delako. Baina nahikoa lortuta du Punpa enpresak.

“Enpresaren aldean egonda, beste mentalitate bat dut orain”

“Arbitroaqatik kexatzen dira futbolearen; pilotan pilotengatik”

Hautatutako materialak al daketa handiak izaten ditu partidaren zehar.

Bai. Esaterako, bihar Tafallako frontoian dut pilota aukeraketa, eta han azken urtebeteen ez da partidarik jokatu eta 10 gradu inguru egoteaz gain hautsa izaten da. Gero, partida egunean, berogailua jartzen dute, frontoia jendez lepo izaten da eta igoal daude 18-20 gradu gehiago eta pilota pixka bat aldatu egiten da. Beroarekin pilota beti bizitu egiten da eta hautaketa egunean hotz bada, normala baino pixka bat baxuagoa hartu behar duzu. Horrekin jolastu behar duzu. Kezka edo beldur hori beti dago baina trukoa hartzen diozu.

“Orain pilotak zer enpresetakoak diren ez dakigu eta abantaila da hori”

“Beotibar erraza da pilotak jartzeko; kontu gehiago izan behar da labriten”

Hautatzaile bezala zer frontoi gustatzen zaizu gehiena?

Tolosako Beotibar erraza da pilotak jartzeko, errebotea hamabigarren koadroan duenez, pilotak pixka bat bizitu arren ez da partida izorratzen. Iruñeko Labritek, berriz, hamar koadro ditu eta segituan errebotea. Pilota pixka bat bizitu edo bote pixka bat hartzen badu, errebotera joaten da eta itsusitu egiten da jokoa. Labriten kontu gehiago izan behar da pilotak hautatzerakoan. Eibarko frontoia, Astelena, arriskutsua da, lurra zakarra duenez bote asko hartzen du pilotak eta itsusitu egiten du partida. Gasteizkoa, Ogeta, nahikoa ona da. Lurra oso leuna du eta pilota ez da gasta-

tzen hainbeste. Han edozer pilota ona da. Frontoi industrial horietan guztietan egokiena Tolosakoa da, pilotak jartzeko errazena.

Badira materialaren garapenak jokoa aldatu duela diotenak. Zer uste duzu zuk?

Bai, hala da. Gaur egun, futbolekin, tenisean, pilotan eta, oro har, kirol guztietan gero eta abiadura handiagoan jokatzen da eta horrek ekarri duena izan da pilotak askoz ere biziagoak izatea eta pilotariak ere fisikoki hobeto preparatuta egotea. Ez dute zerikusirik gaur egungo pilotek duela hamabost urteko pilotekin. Azkenean, pilotak eboluzionatu du pilotariaren erritmora. Duela hamabost urteko partida bat ikusten duzu eta badirudi kamera geldoan ari direla jokatzen. Orduko pilotariak ez ziren preparamatzen oraingoak adina. Gaur egun, pilotariak gero eta atletagoak dira eta pilotak ere azkaragoak behar dituzte. Pilotak zenbat eta biziagoak izan, ikuskizuna ere handiagoa da eta hori gustatzen zaio jendeari. Jokatzeko modua ere aldatu egin da: airez gero eta gehiago jokatzen da, botez eraginkortasuna galtzen baita. Orduan, mundu guztiak txi-

kitatik airez jotzen ikasten du. Azkenean, eboluzioa da. Pilotak horren azkarak dira, pixka bat gatatzen badira denak kexatu egiten dira, gastatutako pilotekin tantoa egitea zaila delako.

Ardura handia al da Atanoren ondorengoa izatea?

Bai, jakinda berak hamahiru urtean lana oso ondo egin duela. Pixka bat akordatzen naiz lehenengo hautatzaileak nolakoak ziren eta nik uste dut aldearekin bera

“Pilotak zenbat eta biziagoak izan ikuskizuna ere handiagoa da”

“Atanok gauzak ondo egin ditu eta haren Lana egiteko modua segi dut”

izan da dela onena eta gauzak ondoen egin dituen. Alde horretatik, hari adina exijitzen badidate nahikoa zaila dut.

Zer aholku eman dizkizu Juan Mari Juaristik?

Diskretua izateko. Pilotak aukeratzeko zituen truko batzuk ere kontatu zizkidan. Enpresetako intendenteek beti esaten didate materiala hautatzerakoan Atanoren protokoloa jarraitzeko. Juan Mari gauzak ondo egin dituenek, haren lana egiteko modua segi dut. Pilota probatzerakoan, hiru leku desberdinetatik jaurtitzen dugu, zer bote egiten duen ikusteko: laugarren koadrotik aurrea; gero, zazpitik zazpira eta, azkenik, sakea balitz bezala lautik bederatzira. Hiru filtro pasatzen dizkiogu pilota bakoitzari. Izan ere, askotan gertatzen da lautik laura bota eta pilota ona dela iruditzea, baina gero lautik bederatzira jo eta txarra izatea. Orduan, pilota hori baztertu egin behar da.

Pilotari bat kexatzen denean zergatik kexatzen da?

Hor bereiztu behar da pilotariak kexatzen denean zer dioen, pilotak txarrak direla ala pilotak ez zaizkiola gustatu. Azken kasu horretan, pilotariak ez ditu gustukoak partida horretan halakoren kontra jokatzeke ez zaizkiolako pilota horiek komeni. Baina horrek ez du esan nahi hautatzaileak lan txarra egin duenik.★



Artola, Albisu, Peñagarikano, Irujo eta Rezusta, materiala aukeratzen Eibarko Astelena pilotalekuan. ||| **ASPE**

Orri zuria

Beste behin orri zuri batek narama zugaraino, galdua sentitzen naizenean hor zaude, berriro ere topatu dezadan hainbeste behar dudana oreka. Balantza ugariaren artean, olatuen kulunkan, bizitzaren kolpeek batera eta bestera naramate. Libre da, eta askea, amets egitea, inolako gasturik gabekoa, eta behar beharrezkoa.

Oinak lurrean jartzeko esan didate hegan jakin gabe. Haizearen gainean sostengatu beharko ginatke, edo jauzi luzeak egiteko gai izan beharko genuke, grabitateari aurre egin. Zer ederra den lurretik aldentzea, geure baitan nahi duguna irudikatzeko askatasuna hartzea, une batzuez, gu izatea, katerik gabeko gu. Kajoietan gordetzen ditugu batzuk, kaxetan edo armairuetan, baita mailetetan ere. Tarteka kateak, giltzaz itxiak, aurreiritziz betiak, beldurrek zainduak, ireki behar ditugu desioak gordetzen ditugun kuxkak, besterik ez bada ere, amestu genuenaz barre egiteko. Irudimena bera ere krisian dugu, jada ez dugu tarterik hortarako, nahiko genukeena zer den jakiteko. Dena da presazkoa, unekoa, derrigorrezkoa, momentuan bertan egin beharrezkoa, mezuei berehala erantzun behar zaie, bestela soka korapilatzen da. Ordulariak garamatza batetik bestera, hori bihurtu zaigu diktadore.

Zoriontasuna kenduta

Batzutan malkoak ederrak dira, beharrezkoak, negarrak oraingo honetan tristurak ekarri dizkigu, amestea bera ere galdu dugun gizarte baten zati garelako ohartzeak, non dago zoriontasuna. Grezia zaharreko ipuin batek hola dio: Jainkoek mundua sortu zutela, baina aspertuak zeudela. Orduan otu zitzaienten gizakia sortzea, beraien berdina izango ziren. Baina denak ez zeuden ados, eta hitzartu zuten zerbait kentzea jainkoen berdina ez izateko. Honela, zoriontasuna kendu zieten. Baina ezbaia ez zen hori amaitu, jainkoek erabaki behar zuten non gorde zorion-



egoitz arruti

III Ideia paregabea iruditu zitzaienten jainko denei, eta hor jarraitzen du zoriontasunak, norbere barnean

tasuna. Batek esan zuen munduko mendirik altuenean gordeko zutela, baina beste batek erantzun zion, ezetz, noiz edo noiz iritsiko zirela gizakiak haraino. Beste batek esan zuen itsasoko zokorik sakonenean gordeko zutela, baina beste batek esan zuen ezetz, haraino ere iritsiko zirela egunen batean. Hirugarren batek esan zuen beste planeta batera bidaliko zutela, baina beste batek ezetz, haraino ere iritsiko zirela egunen batean. Honela, orduak eman zituzten ezbaian. Hitz eta pitz, ideia bikaina izan zuen arte jainkoetako batek, denen arreta bereganatu eta esan zion: Badakit non gordeko dugun zoriontasuna, gizakiek inoiz begiratu ez duten leku batean; denak adi zeuden leku hori zein izango zen entzuteko; Gizakiaren barnean. Denak ados ziren, ideia paregabea iruditu zitzaienten jainko denei, eta hortxe jarraitzen du bakoitzaren zoriontasunak, norbere barnean.

Begiak irekita jarraitzen dut, ametsak ez du etenik hitzartua nagoen arren, irri bat ateratzen, ingurura begiratu, arnasa sakon hartu, bizitzaren beste orri zuri bat zikintzen hasteko prest naiz.



Hemen eta han

Carlos, Felipe, Isabel, Fernando eta gainontzeko errege-erregin katolikoak, beraien goitzenekin, maitatua, desiatua, ehiztaria, ederra... eta aspertzaraino. Gure egin genituen garai batean, halabeharrez. Espainiako mapa ere geure egin genuen 12 urte betetzerako, probintzia, hiriburu, ibai eta mendi guztiekin. Andaluzia, Guadalquivirren sorleku eta Sierra Morena mendilerroaren gotorleku; Aragoiko Aneto tontorra edo Sorian egunero jaiotzen den Duero: gure-gureak. Apur bat beranduago, Europako hiriburuak ere geureganatu genituen.

Halako batean gizarte eta geografiako proba baten aurretik, errepasatzeko denboran ginen. Azterketan sar zitezkeen gauzak aipatu zizkigun irakasleak, tartean, Euskal Herriko mapa; opari bat, erraza benetan, irakaslearen iritziz. Ezin dut seguru esan zenbat urte genituen, 14 edo 15, agian. Kontua zera da, ez genekizkiela mapan kokatzen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa; Iparraldeko altxorak. Zerbait entzuna genuen, izenek esaten ziguten zer edo zer, baina ez horrenbesterako.

Harritu egin genuen irakaslea, eta uste dut oraindik oroituko dela une horretaz. Mapan marraztu zuen Euskal Herria, eta zazpi herrialdeei jarri zien izena. Itxura denez, ez genuen ikasi behar bezala zer den hemen egotea, eta zer han egotea; zein diren gure lur eta mugak. Horri bueltaka ikusi dut ez gnuela herriko auzoen berri ere. Kale izendegia ere duela gutxi ikasi dut, eta zer esanik ez herriko artista, idazle eta abarren berri ere.

Hizkuntzarekin ere halako zerbait gertatu zitzaigun. Sintaxia, gramatika, kohesioa eta abar ikasi genituen espainolez, ondo ikasi ere, idazten hasterako. Literatura ere dastatu genuen: On Kixote Mantxakoa, 98ko belau-naldi triste eta abarrak gure eskolako motxiletan.

Euskaraz, berriz, ez ziguten horrenbeste exijitu, eta unibertsitateko hautaprobaren barre



eneritz albizu

36ko gerraren eta frankismoaren biktimen inguruko bi liburu atera ditu Udalak pasa den hilean

egin ziguten euskaldunoi. Ingelesekoaren tankerakoa edo errazagoa zen euskarako azterketa; hiru bider zailagoa espainolekoa. Ez genuen ikasi behar bezala zein zen hemengo hizkuntza, zein hangoa.

Eta urteen joan-etorrian kostatzen ari zaigu nahi gabe ikasi genuen hura aldatzea. Euskal Herriko txokoak ezagutu gabe jotzen dugu Espainiara eta beste herrialdeetara; kultura eta informazioa ere gaztelaniaz hobe dela sinetsita gaude, eta abertzale askok ez dute ikusiko Hendaia hemen dela, eta Madril han.

Hemen gertatu zena

Espainiako begietatik kontatu diguten beste istorio eta historia bat da 36ko gerrarena. Errepublikarrak zeuden, eta asaldatuak, hala esan ziguten. Baina beste leku guztietan bezala, Azpeitian ere aurpegiak eta bihotzak ditu historiak: sufrimendua, pena, beldurra.

Geureari balioa emateko saiakera horretan, 36ko gerraren eta frankismoaren biktimen inguruko bi liburu atera ditu Udalak

pasa den hilean. Liburu horretan dauden herritarren ahotsek kontatuko digute hemen gertatu zena. Hemen, Azpeitian.✱



ARKAITZ ASTIAZARAN Egoki janari-dendako nagusia

“denda txikiek ematen diete bizitasuna herriko kaleei eta auzoei”

III Bezeroekiko gertutasuna eta konfiantza dira komertzio txikien berezitasunak. Ez dira jendeak uste bezain garestiak eta kalitate hobereeneko produktuak eskaintzen saiatzen dira, zuzeneko salmentaren bitartez askotan. Hala ere, denda txikiek bizirauteko ezin bestekoa den faktore bat dago: jendeak bertan kontsumitzen jarraitzea. Metro karra-tu gutxi ditu Egoki dendak, baina edozer aurkitu daiteke bertan. Sanjuandegin duen dendan egiten du lan Arkaitz Astiazaranek.

Zer egiten ditu berezi komertzio txikiak?

Azpeitiko merkataritza denda handien eta txikien arteko borroka da. Baina denda txikiak dira herriko kale eta auzoei bi-

zitasuna ematen dietenak. Ez dira jendeak uste duen bezain garestiak. Nire dendan produktu batzuk saltoki handietan baino merkeago saltzen ditut. Euskal Herria esnea edo Zapiain sagardoa, esaterako, saltoki handietan baino merkeago daude. Norbaitek alde-ratu nahi badu, nik Euskal Herria esnea 0,79 eurotan saltzen dut eta Zapiain sagardoa 1,95 eurotan.

Zer aurkitu daiteke zure dendan?

Denetik. Frutak eta barazkiak, haragia, izoztutako produktuak, edariak... Edozer. Frutak eta barazkiak ahalik eta freskoenak eta kalitate hobereenak dutenak izaten dira, betiere nondik datozen jakinda. Izan ere, Azpeitiko hainbat baserri-

tarren produktuak saltzen ditut, baita Mauri baserriko arrautzak ere. Ogia Ogi-Eder okindegitik ekartzen dut. Bestalde, haragia ere saltzen dut. Txorizo mota ezberdinak, urdaiazpikoa, York urdaiazpikoa, Arbizuko txistorra, solomoa... Edarien arloan uste dut eskaintza polita dudala. Kriantza ardoetan Señorío de Llanos, Otoñal eta Pagos del Valle ditut; urteko ardoetan Valde-loyo, Castillo de San Martin de Unx ardo gorri nafarra, Nave Norte ardo txuria, Ulazia Getariko txakolina eta, noski, sagardoa: Zapiain eta Añota sagardoa. Prestatutako janaria ere saltzen dut eta baita etxerako produktuak ere. Denda txikia da baina ez da ezer falta.

Izoztutako produktuak ere badituzu.

Bai, orain dela gutxi hasi naiz horiekin. Ikaragarritzko arrakasta izaten ari dira legatza, bakailaoa eta Aginagako gulak. Horiek probatzea ezin bestekoa da.

Zer abantaila eskaintzen ditu zure dendak?

Nire ustez Egokik duen ordutegia da dendak eskaintzen duen abantaila bat. 07:30ean irekitzen dut eta horrek bezero askori ematen die aukera goizean goiz beraien erosketak egiteko, beste egin beharrak egin aurretik. Bestalde, igande eta jai egun guztietan 09:00etatik 13:00etara zabalik dago. Horrez gain, bezeroekin dudatratua gertuko da. Batzuei neronek ematen dizkiet erosketak autorea eta zenbaiti baita etxera ere.

Zazpi hilabete dira denda zabaldu zenuenetik. Zer azpimarratuko zenuke denbora horretatik?

Niretzat oso berezia izan da bezero askorekin hurbileko tratur iristea. Benetan eskertu nahi nieke nireganako erakutsi duten konfiantza eta begirunea. Horrek indar handia ematen du lanean jarraitzeko. Gero eta bezero gehiago ditut, eta hori ikusteak izugarritzko poza ematen dit.

Zertan datza denda txikien biziraupena?

Jendeak erosketak merkatu txikietan egiteak, horrek salbatuko gaitu. Asko entzun ditut denda txikien abantailari buruz hitz egiten, baina kontrakoa egiten dute gero. Horrek arrisku bat du: denda txikiak ixtera kondentatzen gaitu. Beraz, denda txikiak biziraun dezaten guztiok jarri behar dugu alea.✱



Astelehena	10:30 - 13:00	17:00 - 20:00
Asteartetik ostiralera	7:30-13:00	17:00 - 20:00 (ostegun arratsaldean itxita)
Larunbata	8:00 - 13:00	arratsaldean itxita
Igande	9:00 - 13:00	arratsaldean itxita

AZPEITIA, Barrenetxe 8 - Sanjuandegi



Estatua eta euskara

✎ **Uztarria**

A woman with dark hair, wearing a brown sleeveless top and patterned leggings, is sitting on a black chair. She is smiling and looking towards the camera. Behind her is a large red graphic with the word 'PRE' in white letters. To the left of the woman is a white armchair. The setting appears to be a stage or a set for a television show.



|||ESANA DAGO|||

EIDER BEREZIARTUA
Rioja Añares ISB
taldeko jokalaria


 "KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Zuk jai eta nik lan



txetxu urbieta

Gorria ez da nire kolorea. Gorriak, egutegikoak, gorriak pasarazten dizkit, zuk jai eta nik lan. Pasa da eta kito, baina gauzak diren bezala, zuri oso motza egin arren niri, aurten ere, oso luzea egin zait. Autopistan kontrako norabidean doan kotxearen itxura hartzen diot neure buruari. Zuk jai eta nik lan. Mundua gaizki antolatua dago. Eta pentsatzen hasita, zazpigarren eguna jai egiteko agindu zuenaren izenean gorritz margotzen dituzten egunetan, niri lana egitea tokatzen zait. Inoiz baino

gehiago gainera. Trukean zerua ala inpernua dagokit? Inpernua, mesedez, inpernua.

Aste Santua pasatu da, 14 egunak akabo. Zaharren hizkeran, oraingo Aste Santua ez da lehen garai batekoa bezalakoa. Gure txikitakoa hirugarren graduako kartzela zigorraren tankerakoa zen. Presoek gauez kartzelara itzuli behar dute eta fededunok arratsaldean, ezinbestean, mezetara joan behar genuen. Urteko meza luze eta astunenak. Zelako sermoiak, batzutan tratu txarretatik gertu. Eliza-

tik atera eta kalean dena hilda. Etxera joan, telebista piztu eta 10 Aginduak. Arrazak hobera egin du eta orain bakoitzak nahi duena edo ahal duena egiteko aukera du. Zalantza bat, mezetan zaudenean, apaiza sermoia botatzen ari denean, zure gorputza Elizan dago baina zure burua, non egoten da?

Laister berriro ere Elizara itzuli beharko dut. Pekatu eginez sortu nindutenen urrezko ezteiak. Zerua aspaldi irabazi zenuten baina ez izan hara joateko presarik. Zorionak.✱

IKUSTEKOA!



▲ PIZZA BANA, EUSKALTEGIKO IKASLEENTZAT.

Azpeitiko Euskara Patronatuko ikasleei pizza bana oparitu diete La Primavera pizzeriako kideek. Jabeak italiarrak dira eta euskara ikasten ari dira Azpeitiko euskaltegian. Hizkuntza hori ikasteak eskatzen duen esfortzua eskertzeko banatu dituzte irudiko txarteltxoak euskaltegiako ikasleen artean. Pizza euskaraz eskatuko duzue, ezta? 🍕👉 **Julene Frantzesena**✱

||| MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



|||||maite garmendia|||



Menu begetarianoa

GAZTETXEA. Jaten dugunaren kalitatea eta ekoizpen-etika gehiago aztertzen dugun denboran gaude. Non erosi? Zer erosi? Zenbat ordaindu behar dugu jaten duguna? Non ekoizitakoa? Zer dago jaten dugunaren atzean? Eskubiderik ba al dugu beste espezie bateko animaliak jateko? Galdera horien guztien atzean, aukera desberdinak. Bejondeiela gaztetzekoei.



Kriseiluen gaua

500 IZAR. Euri bolada luzea izan dugu aspaldian eta izarrak ikustea zaila egin zaigu lainopean. Halere, kriseilu formako 500 izar bidali genituen ortzirantz. Kriseilu guztiek mezu bera zeramaten. Noraino iritsi ote dira? Goiak eta beheak astindu beharrean gara. Ikus ditzatela guztiak.



DENA EMON BIHAR JAKO...

ASKATASUNA. Lauaxetaren olerki bateko hitzak hartu, musikatu eta bere ahots eder eta hunkituan berriro itzuli zizkigun Eñaut Elorrietak Sanagustingo Oroimenaren ekitaldian. Han ikusi eta entzun genuen azpeitiar askok eta askok asko eman diote maite zuten askatasunari,

gogotik ordaindu arren: bizia, espetxean eta kontzentrazio eremuetan urte latzak, tortura... eta, gero, isiltasun luzea, igarotakoak sendatuko zitu-
tuelakoan edo. Larunbatekoak isiltasun horri leihoa ireki zion, airea har zezan, egiaz zipristinduta. Biziberrituta atera nintzen. Eskerrik asko.*

INKESTA

Eskolaz kanpo
Libururik
irakurtzen duzu?

Ainitze Agirrezabala

ENEKO ELUSTONDO

12 urte



"Asko ez, baina tarteka bakarren bat bai. Udal liburutegian

hartzen ditut maileguan, baina une honetan amamak oparitu berri didan 'El guante de cobre' beldurrezko eta abenturazko liburua ari naiz leitzen".

OIHANA BELOKI

12 urte



"Esku artean beti dut libururen bat irakurtzeko. Eskolako

liburutegitik hartzen ditut. 'Guardianes de sueños' ari naiz leitzen une honetan. Gauean, ohera sartzean, gustatzen zait irakurtzea. Abenturazkoak ditut gustuko, eta gaztelaniaz.

JANIRE LERTXUNDI

11 urte



"Liburu bat irakurtzea bukatu orduko heltzen diot beste bati.

Gaztelaniaz irakurtzen dut, interesgarriagoa iruditzen zait. Etxeko sofa dut gustuko leitzeko eta edozein momentu da ona liburua leitzeko".

JUNE AIZPURUA

12 urte



"Udan bakarrik irakurtzen dut. Euskaraz nahiago dut baina amak esaten dit gaztelaniaz leitzeko, pixka bat hobetzeko".*

Gero arte!

Udaberriari ongietorria emanez hasi nahi nuen idatzia, neurea ere hasiera izanik, bidai lagun izango ginelakoan. Eguzkiak ordu gehiago behar dituela ezkutatzeko idatz nahi nuen, eta Loiolako zelaiak kolorez betetzeko irrikan direla. Baina, ohikoa den bezala, aurrez prestatutako planek ez dute nahi bezala irteten eta, ongietorria eman beharrean, negu-ari gero arte esanez hasiko dut nire Uztarriako esperientzia.

Denok dakigu neguan loreak falta izaten direla gure inguruko belardietan. Kolore itzaliak eta hoztasuna dira nagusi urtaro horretan. Ziurrenik, hori aldatu nahian edo, gure etxetik eraman du lore handi eta argitsua neguak. Berarekin eraman du Jesus Agirre Martinez, ez dakizuenontzat, nire *attitte*.

"Azpeitian jaioa eta azpeitiar petoa" zela esanez hasi zuen elizkizuna Kepa Susperregik, "herrigintzan lana egindakoa, mankomunitatean aritutakoa, Lagun Onakeko jokalaria eta zuzendaritza batzorde-



Eider bereziartua

ko partaide ohia, odol emaleen laguntzailea, Iraurgi Ikastetxeko sortzaileetako, eliz gizona eta abeslaria". Ez ote du, bada, gure herriko aldiakarian tartetxo merezi? Hori guztia zen Jexux. Eta askoz gehiago. Errenkadan eta hitzak lotuaz, ordea, ezin egin merezitako deskribapena. Gizon maitagarria zela esan dezaket, familiako gizona. Bere sei seme-alabei etorkizun hobezina emateaz gain, bere 18 bilobok beti maitasunez hezi gaituen gizona. Abestea pasio izan du eta horrelaxe helarazi digu guri ere musikariko maitasuna.

Eta horrela jarraituko nukeen idatz nire tarteko 1700 karaktereetan ezingo nukeen amaitu. Beraz, gero arte esan nahi diot neguari eta berarekin eraman duen lorea gu zaindu gaituen bezain ondo zain dezala eskatu.

Eskerrik asko *attite*, gure bizitza hobea egiteaz gain Azpeitiko herria ere halaxe egin duzulako. Gero arte!*

galdetzen hasita, euskal herriko
ikurriña saltzen duten dendarik ba al
dago herrian? Uztarria

Hitzik gabe

Batzuetan ez dakigu nola adierazi barnean gertatzen zaiguna. Batzuetan ez dago hitzik.

Nola azaldu sentitzen duguna jakitean Europako mugetan, errefuxiatuen kanpamenduetan, negu gorri honetan familia askoren babes bakarra manta bat dela eta lokatzen manta mehe batekin estalita lo egiten dutela?

Nola esan zer sentitzen dugun jakitean Europako indar politiko eta ekonomiko boteretsuek, gu ere zapaltzen gaituztenek, gehiegi pentsatu gabe errefuxiatuen itxaropena izorratzen dutela, pertsona batzuek ez dutelako itxaropena izateko eskubiderik?

Zer esan behar dugu besteen kontrako mesfidantza eta gorrotoaren argudioa hedatzen dutenean indar ultra-eskuindarren aurrean?

Errealitate berria eta justuagoa eraikitzeko eredu izan da Europa duela gutxi arte. Orain Europak berak pertsonen eskubideak patxadaz zapaltzen ditu.

Nola azaldu sentitzen duguna Bruselako metroan



Miren alcedo

eta aireportuan egondako sarraskia jakitean? Zer egiten dugu gure kulparen sentimenduekin? Zer egin genezakeen egileen etsipenak, amorruak eta ondorioz sortutako ekiditeko?

Frantziak dio gerran gaudela. Gerra honetan ez dugu ondo azaldu zein den etsaia: azal iluna duena?, jaiotako lurraldetik pobrea edo errepresaliatua izatearren Europara etorri dena?

Egun batzuetan hitzik gabe gelditzen gara. Gure tristura da lagun bakarra, beldurrago lagunduta. Hori bai dela arriskutsua. Beldurrez mugitzen garenean ezin dugu pentsatu. Hitzik gabe gelditu naizen egunotan nire pentsamendua doa errefuxiatuen kanpamenduetan bortxaketa eta sexu erasoak pairatzen dituzten emakumeengana bereziki, eta hotzez eta janik gabe hiltzen diren ume zein agureengana.

Azpeitin oraindik gure errefuxiatuen kopuruaren zain gaude. Mimatu nahi ditugu baina... nork ixten ditu gure ate irekiak?*

HAU HOLAXEENK

KULTUR SORKUNTZA
BULTZATZEKO BEKAK?

BAIETZ BAI!
XEI MILLE
EURO DAUDELA!



Kriseiluzko gauak

Hurritz, Zelai-Luzen gaude. Ilusioak piztu eta itxaropenen kriseiluak zerura botatzera etorri gara. Kostata, baina garaiz iritsi gara. Ez dakizu zenbat denbora behar den gure ejertzito txikia mobilizatzeko: azken orduko fardel aldaketak, zure anai-arreben arropa desfiteak... Azkenean, lortu dugu txukun antzean kalera irtetea.

Jendetza dago ibaiaren bi aldeetan. Badakigu jaietan heliozko globoak zerura ihes egiten ikusteak zer plazer ematen digun: noraino iritsiko ote da elefante hori, bihurtuko ote da Doraemon katu kosmiko benetan... Baina

gaurkoan badago zerbait gehiago ere. Ekainaren 12an independentziaz egingo den galdeketa herrian esperantzaren beheko-sua piztu duelakoan nago. Etxetik ekarri dugun ilusio bera ikusi uste izan dut, behintzat, besteren begietan. Sinetsita nago pospolo batek bestera dabilela sua.

Kriseiluak ortziraneko bidea hartzen hasi dira; jendea paperezko globoak suz pizten ari da. Denok gaude gora begira. Halako zeru polita marraztu badugu gaur, zer ez dugu lortuko E12-an... Burua lanoietara doakit, eskuan kiskeroa piztuta daukadala ahaztuta.



|||||xabi borda|||

Konturaterako hor zoaz kotxe eta guzti zerura. Irria izoztuta geratu zait: ume-kotxea suzko globoen artean gora eta zu, inoizko Yuri Gagarin txikiena, estratosferatik harantzago gero eta negar ozenago batetan...

... Esnatu naizen arte! Lasaitu ederra hartu dut sehaskan ikusi zaitudanean grabitatearen menpe. Ez dakit nire amets berdinerakateatua ote zinen, baina lur hartu duzunerako amak bere bularrera bildu zaitu. Abaroa bazu. Nik, berriz, ez dakit nola geldiarazi bat bateko takikardia hau. Sukaldera jaiki naiz, baso bat esneren bila.*

Erotikan Plax!



||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||

Sexualitatea hizpide hartuta solastu da Azpeitiko parrokoa. **Elizarentzat zer da sexualitatea?**

Garai batean familia izateko bidea. Arduraz, maitasunez, xarmtasunez bizi behar dena.

Elizak sexualitateaz duen ideia ez al da zaharkitua?

Autonomi bide bat eman da jendearen aldetik eta elizaren aldetik onespina eman da, nahiz eta seguruenik eliza barruan ere zenbaitzuk gauzak estutzeko joera izan.

Gorputza tentazioa da?

'Gorputz animatua' nahi baduzu ikuspegi elizkoi batetik, espiritu bat duena, ez gara haragi hutsa. Sexualitateari dagokionez, pultsio eta pasio batzuk baditugu.

Sexu berekoen arteko harremana nola ikusten duzu?

Ezagunak eta lagunak ere badituz egoera horretan. Momentu honetan errespetuz. Nahiz eta aitortu, kostatu egiten zaidala ulertzea.

Nola ikusten duzu barruko egituraren emakumearen rola?

Emakumearen presentzia 'kopu-

||||KEPA SUSPERREGI|||

Jaio. 1957ko martxoak 5.
Herria. Erretereria.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Azpeitiko parrokoa.



ruz' nagusiagoa den arren kargu sendoenetatik kanpo daude. Ateak zabaldu beharra dugu.

Seigarren mandamendua: 'Ez duzu lizunkeriarik egingo'. Masturbazioa zer da?

Neuk ez dakit. Dakidana da sexualitatearen pultsioa bizitza osoan zehar dugula. Hori hor dago. Nola bizi hori? Ez nintzateke pekatua den edo ez sartuko.

Munillaren diskurtsoa...

Batzutan harridura, pena... sortu

izan dit hainbat planteamenduk. Generoaren ideologiaz egindako aipamenak, esaterako. Planteamenduetan matizazioak gehiago zaindu beharra dagoela iruditzen zait. Dena ez da zuria edo beltza.

Abortuaz zer iritzi duzu?

Gai latza da. Garrantzitsua da baloratzea jaiotzearen dagoen izaki horren balioa. Badakit erabakia hartu behar duenarentzat egoera gogorra dela. Garrantzitsua da emakumeak izatea azken erabakia.

||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzordua, martxoan: hilaren 9an
(16:00-19:00) eta 19an (10:00-13:00).

Txoko erotikoa bat.

Naturarekin lotuta, ur jauziak..

Jaki estimulagarri bat.

Txokotalea, cola cao bero bat.

Gustuko usain bat.

Loiolako lorategikoak haurtzaroa dakarkit gogora. Itsas ertzekoa ere bai.

Abesti sentsual bat?

Oso gustuko dut Mocedades. 'Has perdido tu tren', esaterako.

Plazerra ematen dizu...

Senideekin egoteak.*



▲ **BERRI TXARRAK.**

Sanagustingo arduradunek Azpeitiko Argazki Elkartera jo zuten 2012an, antolatzen zituzten ekitaldien argazki artxiboa osatzea nahi zutelako. Argazki elkarteko kide da Alberto Beloki eta "animatu" egin zen, argazkilaritza ez ezik "musika asko gustatzen" zaiolako. 'Klik!'-erako aukeratu duen irudi dozenaren barruan, Berri Txarrak-ek 2013an emandako kontzertuko hau.



▲ **AURORA & THE BETR**

Argazkiak egitea tokatu zaion kontzertuak Belokik, Aurora & The Betrayers guztietara joaten saiatzen da.

Bilduma handitzen

Sanagustin kulturgunean kontzertuak direnean, gehienetan han ibiliko da Alberto Beloki, argazki kamera eskuetan. 📎 Mailo Oiarzabal 📷 Alberto Beloki



AYERS.

ertu gehienak gustatu izan zaizkiola
madrildarrena kasu. Ahal duen



▲ ANARI.

Lau urte joan dira Alberto Beloki Sanagustingo ekitaldietan modu
erregularrean argazkiak ateratzen hasi zenetik. Bilduma mardula du,
horrenbestez, eta erreportaje honetarako aukeraketa egitea
kostatu egin zaiola aitortu du. Anariren hau tartean sartu du.

► KEPA JUNKERA & SORGINAK.

Hartutako
konpromisoagatik
gehien ibiltzen dena
bera bada ere, herriko
beste argazkilari
batzuk ere aritzen dira
Sanagustinen; baita
kanpotik etorritakoak
ere, inoiz.





▲▼ **SU TA GAR / VENDETTA.**

Oholtzara igotzen diren artisten irudiak ez ezik, kontzertuetara inguratzen den jendearena eta emanaldietan sortzen den giroa jasotzen dutenak ere ez ditu gutxi Belokik, honako biak bezalakoak.



▲ **ETXEKOAK.**

Sanagustinen egiten diren saioen erdia baino gehiago herriko sortzaileenak dira. Goitik behera, Iraurgiko abesbatza, Banda eta The Friday's Crew.



▲ EXKISSITOS.

Sanagustinek ia su hartu zuenekoa, "literalki". Irudi ikusgarriak bai, baina sustoren bat ere izan zutela gogoan du argazkilariak.

▼ NIRVANA UNPLUGGED.

Herriko taldeen eta sortzaileen ikuskizunak izaten dira sarri kulturgunera jende gehien erakartzen dutenak. Horietako asko, gainera, elkarlanaren fruitu izaten dira, Nirvanaren omenezko kontzertu hau bezala.



▲ BELAKO.

Irudiaren indarragatik bai, baina kontzertuan gozatu zuenagatik ere aukeratzen errazenetakoa izan da Alberto Belokirentzat Belakoren hau. Berarentzat, bizkaitarrena "aspaldiko onena" izan zela dio azpeitiar argazkilariak.✕

MIKEL ARANGUREN

apaiza

“ELIZAK aurka joateari ukitu positiboan azaldu behar da”

Giza baliabideetako arduraduna zen enpresa batean. 30 urterekin, lana utzi eta apaiztea erabaki zuen. 📎📷 Ainitze Agirrezabala

Espiritualitatea-ren inguruko tesia ari da egiten Erroman eta Uztarriak Skype bidez elkarriketatu du.

Nola iritsi zitzaizun bokazioa?

Ez da egun batetik bestera sortzen den gauza. Bizitzan une desberdinetan sentitu nuen barruko dei hori, bokazioa esaten dena. 27 urterekin, misio esperientzia bat bizi izan nuen Perun, jende oso behartsuarekin eta orduan inoiz baino indartsuago sentitu nuen deia. Goseak, gaixotasun larriekin, muturreko egoeran ego-

nagatik bizitzari aurre nola egiten zioten ikusteak nire bizitzako gauza asko zalantzan jarri zizkidan. Konturatzen zara zenbat malkillaje dugun bizitzan, benetako zoriontasunera eramaten ez gaituena. Esperientzia izugarria izan zen eta erabaki nuen denbora hartu behar nuela, bizitzan izan nahi nuenaz hausnartzeko.

Norbaitek ezer bazekien?

Horrelako prozesu batean oso garrantzitsua da norbaitek laguntzea. Nire kasuan ez nuen aukeratu apaiz bat edo gertuko pertsona bat, kontenplazioari emandako



||| **DATUAK** |||||

||| **Jaio.** 1978ko azaroak 7.

||| **Herria.** Loiola. ||| **Bizi tokia.**

Erroma, Italia. ||| **Lanbidea.**

Apaiza.

tzzi eta modu ditu gauzak”



berrogei urtetik gorako moja baik. Jaungoikoaren aurrean jarri eta hausnartu nahi nuen sentitzen nuen hura benetakoa zen edo ez. Ni zoriontsu bizi nintzen. Dena nuen, ez zitzaidan ezer ere falta: lan oso ona nuen, familia, lagunak... Horregatik izan zen oso zaila pausoa ematea. Horrela kontatuta pelikuletako zeozer dirudi, sinestea zaila egiten da, baina Jainkoaren deia eta maitasuna sentitu nituen nire barruan, 'jarrai bide hau' esaten zidana. Ez zen erabaki arin bat izan. Eta urtebeteko hausnarketa haren ondoren pausoa ematea erabaki nuen.

Nola hartu zuten erabakia familiak, lagunek, lanean?

Amari esan nion aurrena. Gero, poliki-poliki, joan nintzen esaten lagunei, lanean, bandan... Harritu egin ziren. Baina, denbora pasatzean denek esaten dizute, "zure bizitza ikusita ez gaitu harritzen". Lanean pena handia hartu zuten. Badakit gaur egun apaiz izateak harridura sortzen duela baina maite zaituenak gauza bakarra nahi du: Mikel zoriontsu ikustea. Familia oso pozik sentitu nuen ordenazio egunean. Arrebak hala esan zidan: "Nire pozik handiena da bidez aldatu zarela baina zeu izaten jarraitzen duzula".

Nola gogoratzen duzu maleta hartu eta etxetik alde egin zenuen egun hura?

Oso polita izan zen. Familia besarkatu eta emozioz malko batzuk bota nituen. Nire kuttuna den *La mision* pelikulako soinu banda entzunez abiatu nintzen kotxean. Izan ere, une hartan, nire bizitzan misio berri bat hastera nindoan.

San Inaziori mirespena diozu. Zertan markatu zaitu?

Gauza askotan. Ausardia izan zuen bere barruko desioa entzun eta erantzuteko eta nik hori asko baloratzen dut. Bestalde, norbere interesak albo batera utzi eta bizitzan ongia eta gaizkia bereiztuz Jainkoaren borondatea bilatu eta betetzen maisua izan zen eta espiritualitate hori harengandik ikasi dut: denean maitatu eta zer-

bitzatu Jainkoaren aintzarik haundienerako. Erroman lantzen ari naizen tesina horretaz da.

Apaiz bokazioa minimoetan dago Euskadin. EAEn azken bi urtetan lau apaizgai baino ez dituzte jaso. Nola ikusten duzu egoera?

Ukatu ezin den gauza da bokazioetan dagoen krisia. Baina bokazio krisia ez dago apaiz bizitzak zentzua galdu duelako; orokorragoa da, kristau bokazioan dago krisia. Bizitzak gorabehera handiak ditu: gaixoketak, istripuak, sufrimenduak, pobrezia... Eta hori ikusten naiz ni, Jaunarena den argitxoarekin sufritzen ari den jende horren ondoan. Sufritzen daudenengandik ikaskizun handiak jaso ditut bizitzan. Jende asko hurbildu zait esanaz arazo handiren bat duenean, larritasunean, akordatzan dela Jaunarekin. Tristeia da esatea baina gaur egun gizartean hainbeste gauza ikasten dugu eta bizitzen ez dugu ikasten. Adibidez, ez diogu geure buruari galdetzen bizitzak eta heriotzak zer zentzu duten, heriotzarekin dena bukatzen al den... Guzti horretan fede esperientziak garrantzia handia du. Benetan merezi du bizitza honetan fedearen bidean bi-latzen saiatzeak, kristau bezala bizitza beste modu batera bizitzan da.

Zergatik uste duzu gaur egungo gazteek ez dutela fedetik? Elizak hutsak daude.

Eliza bezala galdetu behar dugu zertan ez dugun asmatu. Gizarteak aldaketa handia eman duela kontziente gara. Egoistagoak gara, indibidualistagoak. Gure aitona-amonek bizitzaren aurrean zituzten baloreak gaurko gizartean bigarren planora pasatu dira, fedea hamargarrengora eta lehenengoan dago unean unekoa bizitzea. Zentzu horretan, elizak autokritika egitea beharrezkoa eta garrantzitsua da.

Jendearengan bokazioa sortzea eta hutsune horretan nola eragin asmatzea al dira Elizaren erronka nagusiak?

Hain zuzen, horren inguruko ikasketak ari naiz egiten. Teologia espiritualaren erronka nagusienetakoa da gizakiaren eta jainkoaren artean erlazioa sortzen laguntzea. Nire ikasketetan teologiaz gain garrantzia handia dute soziologiak eta psikologiak. Gaur egun go elizaren erronka handienetakoa da gizartearen eta jendearen beharrak eta kezak ezagutu eta hutsune horietara iristea. Gaur egun, jende askoren barruan hutsune handia ikusten dut. Horrek kezka eta pena ematen dit. Apaiz bezala, pertsona horiengana iritsi nahiko nuke, hutsune horiei erantzuna bilatzen laguntzeko.

Eliza zaharkituta geratu da?

Elizak instituzio bezala 2.000 urteko historia du eta egun batetik bestera gauzak aldatzea kostatu egiten da. Egia da gauza askotan berritzen joan behar duela. Nik uste dut gauza asko adierazten ez dugula jakin izan edo diskurtso pixka bat gogorra erabili dugula. Ni ez naiz atrebitzen esaten zaharkituta geratu dela Eliza baina Frantzisko aita santua egiten ari den saiakera erronka bezala hartu behar dugu. Haren jestuek, hitz egiteko moduak freskuri ekarri dute. Jendea bizitzen ari den errealitatearekin bere mezuak konektatzen jakin du eta elizak bide horretan animatu behar du.

Belaunaldi aldaketa bertututa dagoela uste al duzu?

Ez dakit. Gizarte honen ezaugarri nagusienetakoa da ekonomiaren arloan, kulturen, filosofian, teknologian, zientzian... aldaketek darabaten abiadura. Hori elizara ere eraman behar dugu. Ni ez naiz kezkatzen zenbat izango garen, baizik, gaudenak benetako testiguak izan gaitezela.

Emakumeak apaiz izateko aukera nola ikusten duzu?

Egun ez da posible. Parekidetasuna lortu nahi den gizartearen, galdere hori Elizari planteatzea bidezkoa ikusten dut eta Elizak gizartearen aurrean dauden arazoak egoki agertzen saiatu behar du. Dena den, badaude Elizan



Apaiztu zen egunean, Donostiako Artzain onaren katedralean. || M. A.

beste esparru batzuk eta horietan emakumearen presentzia handiagoa izan daiteke. Bide hori jorratzea posible da. Aita Santuak aukera horiek sakontzeko asmoa agertu du. Aberastasun handia litzateke ahal den esparruetan emakumearen presentzia bermatzea eta sustatzea.

Egokia iruditzen al zaizu Elizak erakunde modura pederastia kasuen aurrean erakutsi duen jarrera?

Kasu guztiak onartezinak dira eta barkamena eskatu behar dugu ez behin, mila aldiz. Pederastia gaiaren inguruan, Benedikto XVI.a hasi zen kontua argitzen eta pauso handiak eman dira ordutik. Elizaren barruan sentsibilizazio handia dago gaiaren inguruan, neurri asko hartu dira eta gure esku dauden bitarteko guztiak jarri behar ditugu halako gertakari larriak berriro gertatu ez dadin.

Iazko irailaren 13an apaiztu zinen, Donostiako Artzain onaren katedralean. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Jaunaren maitasuna sentitu nuen, nirekin zegoela. Jendearen aldetik ere oso maitatua sentitu nintzen. Familia, lagunak... katedrala bete egin zen. 80 apaiz baino gehiago izan ziren. Poz handia dut, bai katedralera, bai Azpeitian eman nuen meza berrira osabaziteba eta lehengusu guztiak etorri ziren. Bandako kideak, enpresa-koak, lagunak, herritarak... ere

bai. Azpeitian eman nuen meza berria ederra izan zen, desberdina, askoz ere familiarragoa.

Perun misio esperientziak bizi izan dituzu. Zer harreman duzu Perurekin?

Oso harreman handia dut. Pertsonalki ezagun asko ditut han. 15 urteko seme besoetako du Selvan. Pozoituta, bere buruaz beste egiten saiatu zen eta zela batean bilatu zuten hilzorian. Negarrez esaten zidan ez zuela nahi bizi eta Jaunarekin haserre zegoela bizitza salbatu ziotelako. Prozesu sakon baten ondoren, Jaunarekin haserre egotetik bizipoza eta itxaropena berreskuratu zituen. Fedea gauza handiak egiten ditu. Nik han egin dezakendana baino gehiago jaso egiten dut. Ikaskizun handia da Peru.

Homosexualitatea gaixotasuna dela esan izan dute Elizan.

Aita santuaren hitzekin geratzen naiz: "Nor naiz ni epaitzeko".

“dena nuen, ez nuen ezer falta. oso zaila izan zen pausoa ematea”

“Eliza bezala galdetu behar dugu zertan ez dugun asmatu”

Abortuaren kontra dago Eliza.

Ni abortuaren kontra ez noa; bizitzaren alde noa eta horretan lagundu behar dugu. Modu positiboan pentsatzea eta planteatzea gustatzen zait. Abortuaren kontrako jarrera salatzetik pasatu beharko genuke bizitzaren aldeko jarrera defendatzera. Hortik aurrera, kontzientziatik bakoitzak erabaki beharko du zer egin. Agian ez dugu asmatu gauzak modu egokian azaltzen. Bizitzaren aldeko apustuan benetan sinesten dut.

Zelibato botoa emana duzu.

Zelibatoa ezin da ulertu Jaungoikoaren maitasun esperientzia hau gabe, bestela karga handi bat litzateke. Niri umeak asko gustatzen zaizkit baina seme-alabak eta emaztea izan beharrean zelibato-bizitza aukeratu dut apaiz izanez. Bide horretan, askatasun handiagoa sentitzen dut nire bihotza Jainkoari eta herriari gehiago emateko. Baditu bere zailtasunak ere. Horregatik lanke-ta prozesu sakona eskatzen du, norbere barneko inpultsoak, sentimenduak entzun eta landu behar dira. Bide horretan Jainkoaren maitasuna eta herriaren maitasuna zutabe sakonak dira.

Aita santu berriaren jarrera aurrerakoiaz zer diozu?

Niri aita santu honek ilusioa pizten dit. Oso ondo komunikatu eta jendearengana iristen da. Aurka joateari utzi eta benetan erakutsi diezaiozun gaurko munduari guk sinesten dugun horren edertasuna, maila guztietan: sexuan, abortuan edo apaiz izatean.

Eta Munilla gotzainaren jarrera 'atzerakoiaz'?

Elizaren barruan aniztasun handia dago eta hori aberatsa da, baina guztiak norabide berean joatea eta batasuna izatea ere garrantzitsua da. Nire erreferentzia Jesusek eta haren estiloak izan behar du, Elizako seme izanez. Zatiketarik elizari min handia egiten dio eta gizartearen aurrean ere sinesgarritasuna galtzen du. ✕

YON CUADRADO apaizgaia

“Jendeak ez du fede eta espiritualitate planteamendurik egiten oso azkar bizi garelako”

III Sukaldako lana utzi eta barneko deiari erantzunez Iruñeko seminarioan ari da apaiz ikasketak egiten Yon Cuadrado (Azpeitia, 1998). **Nola iritsi zitzaizun bokazioa?**

Prozesu luzea da. Nire familia ez da elizkoia izan, baina fedearen ukitua amarengandik jaso dut. Duela zortzi urte, kuadrillako batek komentatu zidan parrokiako aisialdi taldera zihoala eta joan nahi nuen. Zalantzak izan nituen baina hainbeste tematu zelako azkenean joan egin nintzen. Talde hartan ezagutu nuen Mikel Aranguren; begiralea zen. Bilatu eta pentsatu gabe sakoneko konexioa eman zen, nire fede bizitzarako oso garrantzitsua izan dena.

Nola deskubritu zenuen apaiz izan nahi zenuela?

Nik garbi nuen sukaldaria izan nahi nuela, baina amak mundu hori ondo ezagutzen zuen eta lan horren gogortasuna ez zuen niretzat nahi. Hala, informatikako zikloa egin nuen. Nire barruan, orde, sukaldaritzaren harrak hor jarraitzen zuen. Azkenean, Bilbon sukaldaritza ikasi eta Lau Bide jabetxean lanean hasi nintzen. Amesten nuen horretan nengo-



Jon Cuadrado, Sebastian Donearen parrokiaren atarian. III A. Agirrezabala

en, baina ez nintzen beteta sentitzen. 25 urterekin, bizitzaren zentzua, izatea, norabidea... zailtzan nituen. Ilunaldi hartan, sentitzen nuena lagun min batekin elkarbanatzen hasi nintzen, fede ikuspegia ardatz hartuta, eta gogo-jardunak egin nituen aste-

betez. Garai hartan, gainera, amari minbizia diagnostikatu zioten, 53 urterekin. Tratamenduari esker aurrera aterako zela esan ziguten, baina ustekabea eta azkar minbizia zabaldu zitzaion. Familiako egoera bereziarengatik amaren ondoan egotea niri toka-

tu zitzaidan eta sei hilabete oso gogorrak eta mingarriak bizi izan nituen. Prozesu pertsonalean sakontzen ari nintzen fede ikuspegiak amaren gaixoardian eta heriotzean hausnartzen eta bizitzari beste zentzu bat ematen lagundu zidan.

Esaten den bezala, jainkoaren deia jaso al zenuen?

Ama gaixo zela, sufrimendu haren erdian jabetu nintzen zerbait bazela lasaitzen ninduen. Une hartan barnean sortzen ari zitzaizkidan galderak erantzun beharreko deiak ziren. Fedearen esperientzia gero eta sakonagoa zen eta gaur esan dezaket Jainkoaren deia zela. Hausnartzen jarraitu nuen eta nire barnean gero eta argi, indar eta konfiantza gehiago nuen, betetzen ninduen erabakia hartzeko. Jesusen antzera, muga eta guzti, nire bizitza besteen zerbizura jartzearen eskakizuna handitzen zihoan. Jainkoaren deia hor dagoela antzematea prozesu bat dela esango nuke.

Nola hartu zuten erabakia familiak eta lagunek?

Nire kezkek nituen, ez nekien-eta nola hartuko zuten, baina nire haridurarako guztiek erreakzio bera izan zuten: “Espero genuen, zain geunden”. Hori entzunda neu ere lasaitu egin nintzen. Aurrez aurre amari esan ez izanaren pena dut, baina beste modu batera, gaur ere bidelagun sumatzen dut, era-

ALUMINIOS AZPEITIA®
ARRETXE KALEA, 13 - 20730 AZPEITIA
TEL. 943 81 18 32 FAX 943 81 67 40

ALUMINIO ETA FENOLIKO AROZTEGIA

Aluminiozko lehioak
lehio mixtoak - atek - barandilak
toldoak - itxiturak - bulegoetako hormak

Kabinak - armairuak
leku bustietarako altzariak
kanpokalderako altzariak - entzimerak
pareten forraketak - fatxada haizeztatuak



bakia koherentziaz eta arduraz aurrera eramaten laguntzen.

Nola gogoratzen duzu maleta hartu eta etxetik alde egin zenuen egun hura?

Ez zen erraza izan. Amaren heriotza ere oso berria zen artean, eta zeharo ezezaguna nuen bide bat hasi behar nuen, leku berri batean. Baina, berriro ere, fedearen bultzada eta Jainkoaren esperientziatik sortzen den konfiantza sentitu nituen. Aldaketa handia izan da nire bizitzan baina egindako aukeraketarekin oso zoriontsua naiz.

Zergatik uste duzu gaurko gazteek ez dutela federik? Elizak hutsak daude.

Gaur egun jendeak ez du fede eta espiritualitate planteamendurik egiten oso azkar bizi garelako. Geure buruari ez dizkiogu oinarritziko galderak egiten: Zer zentzu duen bizitzak edo zertarako gauden. Denetik dugu, eta gaizki sentitzen garenean hausnarketarako tarteak hartu beharrean erosketak egitera goaz. Egoera horretan, bizitzaren inguruan galderak egitea ez da batere erraza.

Eliza zaharkituta geratu al da? Zer diozu krisi horri buruz?

Eliza oso handia da, unibertsa, eta zikloak ditu. Gure aldean zaharra da, baina beste hainbat alderditan gazte aurpegia du. Dena den, garrantzitsuena bere oina-

rrizko mezua zaintzea eta zabal-tzea da: Jesusen Jainkoaren erreinua eraikitzea. Eta hori ez da adin kontua, barneko bizitasun kontua, baizik.

Oraindik ere, homosexualitatea gaixotasuna dela diote askok Elizaren barruan.

Elizak familia eredu bat defendatzen du. Bibliak dio gizona emakumearentzat egin zela, eta alderantziz, eta bi horien maitasunetik beste izaki bat sortzen da. Elizak ez dio sexu bereko bi pertsonen elkarrengan sentitu dezaketena gaizki dagoenik. Elizak dio bi pertsona horien arteko koitoak ez duela benetan maitasunak eman beharko lukeena ematen.

Abortuaren kontra dago Eliza.

Guztiaren gainetik bizitza defendatzen duelako.

Emakumeak apaiz izateko aukera nola ikusten duzu?

Emakumeari garrantzia handiago eman behar zaio Elizan. Aita Santuak berak dio emakume gehiago nahi duela Elizan. Arazo baten aurrean gizonak ikusten ez dituen ikuspuntuak ikusteko gaitasuna du emakumeak.

Belaunaldi aldaketa bertututa dagoela uste al duzu?

Egia da elizako atea ireki eta ia denak pertsona edadetuak ikusten dituzula. Baina eliza ez da pertsonen egindako gauza bat. Eliza Jesu Kristorengan eraikitako

elkartea da, Jainkoaren Erreinua zabalteko. Horregatik, era batera edo bestera, Elizak aurrera segiko du, Espiritu Santuak gidatzen duelako.

Egokia iruditzen al zaizu Elizak erakunde modura pederastia kasuen aurrean erakutsi duen jarrera?

Aita Santuak egin duena oso garrantzitsua da: "Hau dago elizan,

“Aldaketa handia izan da nire bizitzan baina oso zoriontsua naiz”

“Emakumeari garrantzia handiagoa eman behar zaio Elizan”

ezin dugu ezkutatu, ezin dugu onartu eta, arduraz eta heldutasunez, erantzuna eman behar zaio”. Eta, azkenera arte, ildo horretatik lanean jarraitu.

Aita santu berriaren jarrera aurrerakoiaz zer diozu?

Haren jarrera ebanjeliozkoa bezala definituko nuke. Elizari eta kristauari dagokion jarrera. Garrantzitsua da Aita Santuak azpimarratzen duena: elizak pobrea izan behar du eta pobreentzat.

Eta Donostiako Munilla gotzainaren jarrera atzerakoiaz?

Zalantzarik ez dut elizbarruti bakoitzeko gotzainak ebanjelioaren berri onaren testigu eta mezulari izan nahi duela; baita gure gotzainak ere. Gerta daitekeena da bakoitzak ikuspegi ezberdinak –irekiagoak edota itxiagoak– agertzea; eta, horretan, norbere fede bizitzak zeresan handia du.

Zelibatu bizimodua eman beharko duzu apaiz ordenatzen zarenean.

Erabaki horrek, une honetan, zelibatua berekin darama, eta horren jabe naiz. Baina, erabaki hori hartu dut beste maitasun zabala-go batek harrapatu nauelako, Jainkoaren maitasunak, alegia. Eta horrek nire gizatasuna, afektibitatea, sexualitatea... betetzen ditu. Noski, maitasun hori zaindu beharra dago, une batzuetan zailtasun berriak ager daitezkeelako. Guzti hori ukatzerik ez dago, azkenera arte bizitza prozesu oso bat delako. Gorputzak sexu-beharra ditu eta hori landu egin behar da eta ez da erraza. Hori lantzeko dira seminarioko sei urteak. Ni beti izan naiz umezalea; nire nahia familia osatzea zen. Elkar maite duten bikoteak ikustean poza sentitzen dut; baina nire bizia besteen zerbitzura eskaintzea eta ebanjelioa ereitera ematea erabaki dut.*

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behe



**hurbildu gure dendara
zure terraza, lorategia edo txokoa janzten lagunduko dizugu**



azpeitia 9431500850 www.kimubat.com





@Eregi_EK



Eregi Euskara Eta Komunikazioa

Ekin  eraiki

 **ERE**GI

Zerbitzuak

Marka nortasuna

- Aholkularitza eta kudeaketa

Komunikazio estrategia

- Komunikazio planak
- Komunikazio kanpainak

Irudia eta diseinua

- Identitate bisuala: logotipoa eta euskarrien diseinua
- Argitalpenak: liburuak, aldizkariak, katalogoak...
- Seinaleztapena
- Argazkiak
- Ilustrazioak
- Bideoak

Web

- Web orriak
- Sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak

Harreman publikoak

- Prentsa bulegoa
- Ekitaldiak, produktu aurkezpenak...

Hizkuntzak

- Testuen erredakzioa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa, katalana, galegoa...



Goiko kalea, 5 - 3A - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)



943 08 06 88



eregi@eregi.eus



www.eregi.eus

Kuadrillan, gustura

Txolarte gazteen aisialdi taldeak urte eta erdiko ibilbidea du eta hainbat kide eta boluntario elkartzen dira zapatuero. “Giro ona” dute euren artean. 📝👁️ Olaia Iraola

Atzegiren aisialdi programa da Txolarte. Helduen taldea sortu zela urteak dira, baina gazteak parte ziren programa geldirik egon da hainbat urtez. Horiei aisialdirako aukera bat emateko helburuarekin, Atzegi familiekin eta bolondresekin harremanetan jarri zen. Horrela, egun martxa onean doan gazteen Txolarte 2014ko urrian osatu zen. Txolarteko gazteekin eta boluntarioekin aritu da solasean Uztarrria.

Hasiera batean, bi astean behin gelditzen ziren baina bolondresak zein gazteak elkarrekin gustura zebiltzanez, gaur egun larunbatero gelditzen dira. Maite Azkue (Azpeitia, 1995) Txolarteko bolondresetako bat da. “Boluntario mordo ginen bat-batean. Gure artean nahiz gurasoekin hitz egin eta konpromiso hori astero-astero hartzea erabaki genuen. Denok gustura gabilta”, dio. “Egun, 14-22 urte bitarteko gazteak dira Txolartera etortzen direnak, baina guk ez dugu adin tarte bat finkatuta, denak dira ongi etorriak”.

Musika eskola eta Euskaltegia kokatuta dauden eraikinean du lokala Txolartek. Txolarteko bolondres Mikel Subinasen (Azpeitia, 1997) esanetan, “helduekin hasi ginen topo egiten larunbat batzuetan eta berehala konturatu ginen helduen aisialdia eta gazteena ez zetozeela bat. Hori dela eta, aldamenen dagoen beste gelatxo bat hustu eta egokitzten ari gara. Hala ere, oso txikia gelditzen zaigu. Gazte asko gara eta eskaera bat egin



Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Eli Agiriano, Ander Idoeta, Lander Uria, Mikel Subinas eta Ainhoa Fernandez

dugu Atzegira. Azpeitiko Udalarekin harremanetan ipini gara eta lokal handiagoa eskatu diogu". Lokal erosogoa eta irisgarriagoa balute, bertan denbora gehiago igaroko luketela diote, izan ere, gaur egun daukatena ez dute askorik erabiltzen.

Planen abaniko zabala

Asteroko hitzordu nagusia zapatuan dute, eta Atzegik Txolarterako jartzen dituen aisialdirako proposamen batzuetan parte hartzen duten arren ez dute programa zehatzik jarraitzen. "Kuadrilla bat gara eta gazteen eta bolondresen artean *Whatsappeko* talde bat dugu. Asteazken aldera, nor etorriko den eta zer egin hitz egiten dugu", kontatu du Azkuek. Horren arabera egiten dituzte planak.

Horrez gain, astelehen eta asteazkenetan, hainbat gazte eta boluntario udal igerilekura joaten dira. Igerilekuko langilea den Maider Aizpuruarekin astelehenetan igeri egiten dute eta asteazkenetan gimnasia. "Oso gustura eta gogotsu" joaten direla azpimarratu dute gazteek. Olatz Aguado (Azpeitia, 1972)



z. Behean, Maite Azkue eta Ander Alberdi. ||| **Olaia Iraola**



1. lazko San Silvestre lasterketan atera ziren Txolarte gazte taldeko kideak. **2.** Zumaiako Itzurun hondartzan. **3.** Azpeitiko zezen plazan urrian egin zuten Grand Prix ikuskizuna ikusten.

bolondresak adierazi duenez, "batzuei igeri egitea gustatzen zaie. Besteek, aldiz, nahiago dute hockey-a bezalako kirolak praktikatuz". Igerilekuko gela bat izaten dute eta astero kirol ezberdinak praktikatzeko dituzte.

Lander Uriak (Azpeitia, 2001) Txolarterako gaztea da eta lehengo urtean San Silvestre lasterketan parte hartu izana oso gogoan du. "Ez genuen batere entrenatu lasterketarako, baina ondo amaitu genuen eta baita ederki pasatu ere". Landerren aita Santos Uriak (Azpeitia, 1962) gazteak zein bolondresak oso gustura ikusten dituela azaldu du. "Asteburuetan lagunekin egoten dira eta ekintza ezberdinak egiten dituzte. Oso gustura ikusten ditut denak. Komunitatean ahalik eta autonomoen izan daitezen ere ahalegintzen dira. Beraz, beraiegangandik sortutako planak gero eta zabalagoak eta anitzagoak dira. Atzegik antolatuta, lehen aldiz Azpeitiko Txolarterakoak oporretara doaz abuztu amaieran astebete pasatzera, Pineda del Marrera (Tarragona, Herrialde Katalanak)". Lander oporretara joateko "gogoz" dago. "Parranda asko egin behar dugu", dio.

Ander Idoeta (Azpeitia, 1996) ere gazteen Txolarterako kidea da, eta ez da geldirik egoten den horietakoa. Udal liburutegian, turismo bulegoan eta elikagaien bankuan ari da lanean egun eta Txolarterako kideekin egoteko denbora ere ia beti ateratzen du. "Zapaturo gauza ezberdinak egiten ditugu. Batzuetan pelikulak ikusten ditugu, beste batzuetan, berriz, afaltzera joaten gara. Zezen plazara ere joan ginen Grand Prix ikustera eta barre asko egin genuen." Eli Agirianok (Azpeitia, 1997) ere "egun handia" izan zela azpimarratu du. Hala ere, berari gehien gustatzen zaio-

na Txolarterako beste kideekin kalera zerbait hartzera joatea da. "Mosto hartzera joatea gustatzen zait. Oso ondo pasatzen dut eurekin, lagun asko ditut".

"Planak egiterako orduan, joko handia ematen du bolondres asko egoteak", dio Aguadok. "Gazteak, eta boluntarioak ez gaude larunbatero etortzera behartuta. Ahal duena etortzen da eta ez datorrenak badaki hurrengo larunbatean ere etortzeko aukera duela. Denok ditugu gure zereginak eta betebeharrak; unibertsitatea, familia... baina, hala ere, ez dago larunbatik gazterik eta bolondresik ez dagoenik". Gazteengandik eta boluntarioengandik planak irteeta eta kuadrilla moduan ibiltzea da euren helburua.

Zapatu bat, lezio bat

"Denek denengandik asko ikasten dute". Hala dio Azkuek "Gu eurei gauza berriak erakusten ahalegintzen gara, baina geuk gehiago ikasten dugu. Ederki pasatzen dugu eta asko eskertzen digute egiten duguna".

Boluntarioek gazteei laguntza eskaintzen dieten arren, gazteek elkarri asko laguntzen diote. Aguadoren esanetan, "gurpildun aulkiarekin laguntzeko nahiz beste edozertarako daukagu euren laguntza. Gauza askotarako gai dira. Askotan borondate onenarekin laguntzera joaten gara eta eurak dira guri laguntzen digutenak".

"Egunerokotasuna hausten ahalegintzen gara", dio Subinasek. "Larunbat bakoitza lezio bat da", dio Aguadok. "Ezer gutxi behar dugu ondo pasatzeko eta beraiek eskaintzen digutena ezin da hitzez azaldu. Beraiegangandik horrelako bizi poza, esker ona eta zintotasuna jasotzea gauza handia da gero!".✳

Itzulera sonatuen gaua

Jotakiek, Direccion Obligatoriak, Jo!-k eta Lin Ton Taunek kontzertua eskainiko dute, Azpeitiko ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko prestatu duten ikasturte beteko egitarauaren baitan.  Ainitze Agirrezabala

Azpeitiko ikastolaren sorreraren 50. urteurrena ospatzeko prestatu duten ikasturte beteko egitarauaren barruan, Urola bailarako lau talderen kontzertu berezia antolatu dute. Lau talde horietako bi, Jotakie eta Direccion Obligatoria, berriz elkartuko dira emanaldi horretarako. Bi talde horiek 80ko hamarkadan jardun zuten—Jotakieren hasierako hainbat musikariek taldea utzi eta gero sortu zuten Direccion Obligatoria—, eta garai hartan hemen oso zabaldua ez zeuden pop-rock doinuak ekarri zituzten, euskaraz Jotakiek eta gaztelaniaz Direccion Obligatoriak.

Lin Ton Taun geroago sortu zen, 90eko hamarkada hasieran, Zestoan, eta oihartzun handia lortu zuen lehen bi lanekin. Hainbat urtetako etenaren ostean,

III DATUAK

III Zer. Kontzertuak.

III Eguna. Apirilak 9 (zapatua). III Ordua. 22:00.

III Tokia. Sanagustin kulturgunea.

III Antolatzailea. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai eta Urola Ikastola.

2013an itzuli zen eszenatokietara, baina geroztik emanaldi bakan batzuk baino ez ditu eskaini. Jo! taldea, berriz, 2004an sortu zen eta 2007an Oraindik berandu den! diskoa argitaratu zuen.

Sarrerak, eskuragai

Kontzerturako sarrerak 10 eurotan daude salgai Sanagustinen eta Interneten. Eta egunean bertan, 12 eurotan erosi ahalko da.

III JOTAKIE

25

urte. 1981etik 1990era bitartean iraun zuen Jotakieren jardunak. Mende laurdena isilik pasatu ostean elkartu dira taldekideak.

3

disko. Zurt (1986), Piztu nazazu jauna (1987) eta Joxemai Beltza (1989) kaleratu zituen Jotakie talde mitikoak.*



Jexus Sudupe 'Patta' (Direccion Obligatoria), Joxe Antonio Elorza (Jotakie), Mikel Alberdi (Jo!) eta Joseba Illarramendi (Lin Ton Taun).  Karmelo Etxegarai Ikastola

III BESTERIK

1 Diego Garcia gogoan, lasterketa XXIII. Azkoitia-Azpeitia Maratoi Erdiak berritasunak ditu. 7,5 kilometroko lasterketa laburra eta roller lasterketa izango dira.  Eguna. Apirilak 16 (zapatua).  Ordua. 17:00.  Tokia. Azkoitian hasi.  Antolatzailea. Xeye Atletismo Taldea.

2 Erabaki Fest! musika jaialdia

Erabakitze eskubidearen inguruko mezua indartzeko asmoz, lehengo eta oraingo musika taldeek parte hartuko dute: Jotakie, Fundiziyue, LS Senghor, Egurra ta Kitto, Segabathor, Legen Beltza, Tiobibo, Ezten, Verräter eta Trini Fox, besteak beste.

 Eguna. Apirilak 30 (zapatua).

 Ordua. 17:00etatik aurrera.

 Tokia. Sanagustinen eta .

 Antolatzailea. Azpeitiko Alde Zaharreko Tabernarien Elkarte eta herriko musika taldeak.*

 Azpeitiko ekimenen informazio gehiago: uztarria.eus/agenda



BURUZ BURU

Mathis

Ez dakit Uztarriaren apirileko alea inprimategitik pasatu denik. Ez denik ere ez, eta zerbait idatzi egingo dut. Nahiz eta jakin probabilitatea badagoela koaderno xaharrean linterna buruan eta oker samar inskribatzen ari naizen honekk argia ez ikusteko.

Inspirazio falta dela, sormen gaindosia edo erlojuaren zurruntasuna, ez dago erraza zutabe hau aste honetan betetzea. Ez betetzea ere otu izan zait baina aldzikariko komiteak erabaki omen zuen irakurleek ulertu ezin zezaketen zerbait egin nahian nenbela edo genbiltzala Ramon eta biok. Esfortzu gabe ezer ulertzeari bertute bezain pribilegio deritzot.

Ausazko esaldiak idatzi eta ezabatzen nabil. Zakurrak eta igelak unisonoan kontzertua ematen hasi direnetik. Sinkronizatuta egiazki ote dabiltzan ari naiz egiaztatzen. Idazten nabilen arren kate diskurtsiboa eten zait aspaldi... Uztarria zutabetzea zail zaidala asteotan. Egia. Ez nabil herrian eta aktualita-

teari dagokiona nire inguruak konpletatzen du. Euririk ez duela ari eta holakoak.

Deitu berri didate zutabe hau idaztearen pertinentziaz mintzo; Inperatiboan. Normala al da. Hor zerbait gogoangarria pasatu ote den egin dut galde eta Adurizen gola aipatu Espainia eta Italia arteko partidari. Esperimentu gisan ia asmatu dut gertatutako gertakariaren kronika zutaberako: Albaceten Espainiak bina berdindu zuela, kristoren garagardo festa zegoela eta halakoak deskribatzen. Irakurleari gutxi interesatzen zaion gertakizunaren kronika asmatu bat. Ez zukeen uztarriako komitearen irizpide galbahea pasatuko.

Ez dakit zenbat hitz noan. Alboan dudanari iruditzen zaio azkar eta pentsatzen ari naizela. Atzeko orrialdera abiatuko naiz eta hitzak zenbatu: Berrehun eta berrogeita hamar bat. Zienen faltan. Eta oraindik Ramoni inolako parabola eta irakaspenik egin gabe.

Izan dut flashback bat, arratsaldeko zaz-



jurgi arruti

piak inguru izango dira, Agen-era gindoazen, baina indarrak justuan pedalei eragiteko. Calognac izeneko herrixkan gelditzea ebatzi da. Ez baitago besterik Agenera bidean. Dutzatu behar dugu eta zerbait jan. *La fontaine, ou est la fontaine* galdetu dugu. 15 urteko mutiko bat atera da eta *la fontaine* non den erakutsi digu, baita herrian janari dendarik ez dagoela konfirmatu ere. Lo egiteko toki txukunik ere ez dugu ikuskatu. Mont de Narsain-en parking batean egin genuen, lurrean. Bat-batean piztu da baina Mathis, 15 urteko mutila. Bere etxean bera beste inor ez dagoela eta atariko txabolatxo utzi digu, lo-zakuak bertan bota ditzagun. Dutzatzeko mangeratxo eta janari apur bat ere eman digu. Harrituta eta zorutzen gaude. Kontua ez da ekintzaren ontasuna, aktorea nerabe txiki bat dela, bai zik. Rousseau-ren egoera natural ultra-harmoniosora iritsi gabe ere badago esperantza gizakian. Bejondeizula, Mathis.

Maritxu

Ez zara makala, Jurgi! Bejondeizula! Frantsesez alajaina! *La Fontaine, la fontaine...* Kanpo horietan edozer gauza ulertzen dute, edozer gauza esaten dugu. Jon Juaristik, izendaezinak, esaten zuen bere aitak esaten ziola kontuz ibili behar zela gipuzkoarrekin, guztiek jakiten zutela frantsesa eta musika. Eta hara non, zu, bizikletan, nobela errusiar batetik oportetara ateratako pertsonaia bat bezala frantsesez, *la fontaine, la fontaine...* Kosta egiten zait zu horretan irudikatzea, ez baitzaitut abesten ezagutzen, baina *Maritxu nora zoaz* abestiaren frantsesezko bertsio haragiztatua dirudizu. Iturrira Bartolo, nahi adina edatera. Baina bada beste iturri bat, gazteleraz ere, bat gehiago askoren artean, parabolatzen har daitekeena, Aragoiko jota hartan kantatzen dena, *cuando vayas a la fuente, aprieta bien el cántaro, que si el cántaro se rompe difícil será arreglarlo. Tengo mi querer, mi querer,*

como agua de fuente, siempre permanente. Solo es para ti, para tí, mañõ de mi vida que eres mi alegría.

Hizkuntzen nahaspila baina lehenagokoa da unibertsoan hitzen nahaspila. Dirudienez gu bionari bigarrenetik lehenengotik baino tankera gehiago hartzen ari ote zaizkion murmurio anonimoa omen dabil. Ez naiz harritzen. Hitzak ordena egokian jartzen eta ideiak soilitzen saiatu beharko genuke. Erru eta ardua gutxiago inongo komitern horiei eta arreta, bai eta irakurtzen ez dakitenei ere. Irudikatzen al duzu bakarren batek gurea, irakurri beharrean, makina horietako baten bidez entzungo balu? Itsusia da argitara gabekoez aritzea, itsusiago bere burua defenditzeko aukerarik ez duenari adarra jo edo kilima egitea, nahiz eta orri zuriaren aurreko zorabioak erokeria handietara bultzatzen eta bultzatzen egiten digun.

Ikusten dut kanpora ateratze horrek herri



ramon etxezarreta

mina eragiten dizula, kontatuko diguzu la-saiago bueltakoan. Dena den, zenbait azpeitiar etxeratuko dira oportetarik joandako lekuan ikusi dituzten herritarren berri emanez, nobedade handi bezala. Joan eta beste azpeitiarrekin topo egin, marka eta poza! Zabil-tzan inguru horietatik gertu Montauban, Azaña hil zen herria, dagoen aitzakian Ridaoren *El pasajero de Montauban* aspaldiko liburu datorkit gogora. Bertan idazle bidaia-espainiarrek Espainian zehar egindako bidaien berri ematen zaigu, Espainiaren ideia uniformeari egin zioten ekarpena nabarmenduz. Joan ziren lekuetara joan eta ez zutela ez so egiten, ez behatzen, esaten du egileak, aurretik zeuzkaten aurreiritziak sendotzeko asmoa besterik ez zutela egiten. Pozten naiz, zuk, Calognacen jende, gutxi baina, zintzoa ikusi izanaz eta gizakian esperantzarik ez galtzeko motibo bat atzeman izanaz. Banuen zuga fedea.✱

|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



		* Deitura		Irtendarazia		Izeba		Nekarazi		Sorginen bilkura	
		Ezizena		Neurri		Bizkaieraz, iratzea		Ukatzeko			
		▶		▼		▼		▼		▼	
		Ezdeusak		▶							
		Arraza									
Lege	▼	Elaiak	▶	▼					Musika nota	▶	
Guztira		* Izena							Bediako		
▶		▼					Arrautza- ren itxurako Frantziako hiria	▶	▼		
Angula handia	▶						▼	Gabezia	▶		
Alabaren senarra								Nafarroako ibaia			
▶					Marokoko hiria	▶	▼				
				Erne!							
Zegoen	Bokal errepikatua	▶	Basapiztia mota		▶	▼			Kontso- nantea		▶
Euskal Herria				Ez eme						Atzizkia	
▶	▼		Adin txikiko	▶	▼					▼	
		Röntgen									
Haitza, aroka	▶		▼					▶			
						Azalera unitatea					

* Azpeitiar igerilaria



Egilea: Luma

||| SUDOKUA |||

4	1				3			
		2				3	7	8
		6						
		5	8		6			9
	7						4	
2			9		7	6		
						4		
9	5	4				1		
			2				5	7

 **Aiertza Autoak**
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net 

 **La Primavera** da Jonny
pizzeria
943 083 460
 facebook.com/laprimaveradajonny

||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Apirilaren 25a (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola Ardoak-ek emandako ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 ALDE OMEN DAUDE

2 ALEMANIAKO AGINTARIA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	E	A	R	A	●	A	I	R	A	R	A	H	●
E	B	A	G	N	I	D	A	●	N	E	Z		
R	●	I	A	R	Z	A	●	A	A	●	●		
●	I	R	D	A	G	A	●	A	I	A	H	S	
A	Z	E	●	A	R	I	G	N	A	I	●		
L	A	B	O	●	A	R	A	T	O	R	O	●	
E	R	●	K	A	R	A	N	E	●	A		●	
K	A	Z	E	R	E	Z	E	●					
A	N	E	Z	I	T	I	O	G					
●	U	●	I	●	A	●	G	●					



SUDOKUA

8	6	3	1	6	7	2	4	2	5	4	7	8
9	1	5	3	4	2	6	8	7	1	9	3	6
7	8	6	2	4	3	5	1	9	3	6	1	5
3	6	1	5	8	9	4	2	7	6	3	8	1
9	3	8	1	7	4	6	5	2	7	4	6	5
4	2	5	6	9	8	7	3	1	4	2	5	6
6	1	7	3	5	2	9	8	4	6	1	7	3
8	5	3	4	2	6	1	7	9	8	5	3	4
2	7	6	9	1	5	8	4	3	2	7	6	9
1	9	4	8	3	7	2	6	5	1	9	4	8

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Aburua

2 Bufaloa

||| UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Iratxe Etxeberria
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 181. lehiaketaren irabazlea. Odriozola upategiak emandako ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, bi ardo botilako sorta eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rio
z
ola

BIDEOA



▲ KRISEILUEN ARGIPEAN.

Kriseiluen gaua izan zen Azpeitian, Hitzartu elkarteak antolatuta, martxoaren 12an. Saltzeko zituzten kriseilu guztiak saldu zituzten, 500, hain justu ere. Mila lagun inguru hurbildu zen Zelai Luzera euren kriseiluak aireratzera. Aurretik, baina, ekitaldia izan zen plazan eta Hitzartuko ordezkariak amaiera eman zieten urtarilaren 16an erabakitzeko eskubidearen alde abian jarri zuten herri galdeketaren aldeko sinadura bilketari. Guztira 2.296 sinadura bildu dituzte baina bidea ez da hor amaitu. Izan ere, ekainaren 12an independentziaz egingo den herri galdeketara begira lanean jarraituko du Hitzartuk. **Hitzartu**

EFEMERIDEAK

1566

Borreroa ekarri zuten. Herriko kartzelako hiru lapur zigortzeko.

1979

Luxiano Lazkano alkate. Lehen udal demokratikoa osatu zen.

1985

Anbulatorioa. Inauguratu zuten.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarría Kultur

Koordinakundea.✱

INKESTA

Ekainaren 12ko independentziaren gaineke galdeketan emango al duzu botoa?

Bai. %83,10.

Ez. %15,49.

Oraindik ez dut erabaki. %1,41.



ILEAPAINDEGI BIOLOGIKOA



AGIRRE AUZUNEA, 1 AZPEITIA • TEL. 943 503 936 • ANA.BIO

Fast food

Gaur egun, oso modan daude otordu laster-
rak: hanburgesak, saltxitxak, patata frijituak... Aditi-
boz, kontserbantez eta gantz saturatuz beteak dira.

Janari mota horiek gazteentzako oso deigarriak
dira eta gero eta kontsumo handiagoa dute ingur-
uruan. Erakargarriak, goxoak eta oso erosoak dira,
baina osasunarentzat batere gomendagarriak ez.
Baina, nola konbentzitu ditzazkegu gure seme-ala-
bak elikagai onak eta goxoak kontsumitzera?

Lehenengo, jakin beharra dugu, azkar, goxo eta
oso osasuntsu jatea oso erraza dela, lehengaiak
esku-eskura ditugulako. 'Fast food' osasuntsuak
badaude eta horiek defendatu behar ditugu. Berta-
ko produktuak erabiliz eta gurasoen elikadura ohi-
turak berreskuratuz eta multinazionalak ahaztuz.

Entsaladak, zopak, egoskariak, barazkiak, zerea-
lak, tortillak... gure 'fast food'-ak izan dira eta izan
daitezela seme-alabenak eta ondorengoak ere!

Gure aitona-amonek edota gurasoek erakutsita-
ko jateko era eskura —eta ahora— jaso dugun altxo-
rra da eta ondorengoei transmititzea gure esku
dago. Gure burua zaintzea eskubidea eta betebe-
harra dugu.

Goxo eta osasuntsu jan dezakegu,
gozatuz eta elikatuz.

Eta nik konbentzitu al zaitut?*

aitziber aizpuru



ELI URRESTILLA lorezaina



1. Udaberriko loreak...

Geranioak, baltsaminak,
begoniak, surfingniak...

2. Zaintzeko trukoa?

Ura neurrian botatzea.

3. Zaintzeko errazenak?

Zainzuria, gogorra da oso.

4. Mimosoenak?

Kanpokoek ez dute zaintza

berezirik behar. Askotan
hobe da bakean uztea.

5. Lore kontuan ba al dago modarik?

Usaundunak daude modan:
izpilikua, erromeroa, menta...

6. Loreei hitz egiteak egiten al die alderik?

Loreei ez dakit; norberari

igoal bai.

7. Plastikozko loreak...

Ederrenak naturalak dira,
baina argirik ez den lekuan
ez dago beste aukerarik.

8. Opari segurua al dira loreak oraindik?

Bai, gutxiago oparitu arren.*

Ainitze Agirrezabala

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamaldiaik,
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.aitunadenda.com

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza:
- fiskala
- lehorria
- kontables

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tel. 943 157 929 Faxa: 943 157 975
Euzkadi kalea, 43 • Iuba.es@postelnet.net

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 59 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

di

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00


Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



1. Hainbat pelikuletan ere hartu du parte, aktoreak orrazten. Argazkian, 'Gernika' filmeko klaketarekin. **2.** Ile-apaintzaile profesionalentzat ikastaroa eskaintzen. **3.** Melanie Griffith aktorea orrazten, Maria Cristina hotelean. Donostiako Zinemaldiko 56. edizioan ile-apaintzaile ofiziala izan zen.



Zilarrezko guraizeak

Kimetz ile-apaindegiaren 25 urteko ibilbideaz eta "lortutako ametssez" aritu da Javier Jauregi. 📌 A. Agirrezabala

Amak ez zuen nahi izan semea ile-apaintzailea izatea, lanbide hura emakumeena zela irizten baitzuen. Garai hartako mutil gehienek tailerra zuten ogibidea eta usadioa galdu gabe, Tolosako eskola profesionalera bidali zuen Javier Jauregi (1968, Bidania), metaleko zikloa egitera. "Ia gai guztiak suspenditu nituen, baina bikaina nintzen marrazketan eta tailerrean lixatze eta pulitze lanetan". Bidanian baldosina enpresa zabaldu zuten eta hura izan zuen bere lehen beharra. "Etxetik egiten nuen lana, akatsa zuten baldosatxoak baztertu eta moldeak osatuz. Han irabazi nuen lehenengo soldatarekin ordaindu nuen matrikula Donostiako ile-apainketa eskolan, garai hartan 25.000 pezeta. Lehen lau hilabeteak ordaintzeko iritsi zitzaidan; handik aurrerakoak pagatzen amak lagundu zidan".

Ikasketak bukatu orduko heldu zion lanari Donostiako ile-apaindegi batean eta Bidaniako bizilagunek laister jakin zuten esku ona zuela Jauregik. Auzoko gizon eta emakumeen enkarguak amak hartzen zizkion eta Donostiatik bueltan, Tolosako tren-estazioan Renault 6 zaharra hartu, etxera joan, afaldu eta baserriz-baserri joaten zen jendea atendi-

tzera. "Ile-apaindegi batean lanean hasten zarenean ez dizute dena egiten uzten baina gauza asko ikusi egiten dituzu eta ikusitako hura iluntzean praktikatzen nuen nire bezerekin. 300 pezeta kobratzen nien zerbitzua". Lana "pasioz" egiten zuela dio, eta astegunean ez ezik zapatuero eta jaiero etxetik etxeko jardunean "asko ikasi" zuela. Bidaniako emakumeak izan ziren Jauregiren 'akuriak'.

Madril, Bartzelona, Londres, Milan eta AEBetako Dallas, New York eta Los Angeles "inspirazio iturri" izan ditu Jauregik, hiriburu horietan hainbat formakuntza saio jaso eta emana baita. Une honetan, bi ile-apaindegi ditu Kimetz izenarekin; Azpeitian zabaldu zuen lehena, duela mende laurden; eta gero etorri ziren Eibarkoa eta Donostiakoa, nahiz eta azken hori lagun batek kudeatu, gaur egun.

Bide berriak urratuz

"Ile-apaintzailearena ikastea sekula bukatzen ez den bizibidea" da bidaniarraren esanetan. "Nire sektoreko batek hala zihoen: 'Uste baduzu dena ikasi duzula, akabatuta zaude'. Hainbeste ikusi duzu, iristen da momentu bat ikusten duzunak ez zaituela hainbeste betetzen". Alabaina, profesionalki janzten eta per-



Argazkian, Azpeitiko eta Eibarko Kimetz ile-apaindegietako lan-taldea. Ezkerretik eskubira eta goitik behera: Itziar Onaindia, Maite García, Itziar Iturria, Izaskun Jauregi, Elena León, Ane Prol, Irene Ramirez, Elena Caparros eta Javier Jauregi. ■ Ainitze Agirrezabala

tsionalki hazten joateko asmoz, ile-apaindegietako hormetatik haratago arlo desberdinetan gauza interesgarri asko egin du Jauregik, azken urteotan. Donostiako Nazioarteko Zinemaldian ile-apaintzaile ofiziala izana da eta 'izar' ugari pasatu dira haren eskuetatik: Javier Bardem, Melanie Griffith, Pedro Almodovar, Natalia Verbeke..., besteak beste.

Horrez gain, ile-apaintzaile profesionalentzat formakuntza-ikastaroak ere eskaintzen ditu. "Azken aldian, lan eskaera handia ari naiz izaten eta hilean bitan-edo ikastaroak ematen ditut Espainian. Gaztela eta Leonen, Burgosen, Valladoliden, Salamancan, Tolondon, Gijonen... leku askotan izan naiz. Esaterak dio: 'Ez zaitez izan profeta zeure herrian', eta nire kasuan bete egiten da. Burgosen-eta oso ezaguna naiz profesionalen artean baina ni ikustera jende gutxien hemen bertan lana egiten dudanean doa". Normalean, hornitzaileek edo ile-apaintzaileen elkarteek kontratatzen dute Jauregi eta 200 lagun ingururen aurrean erakusten ditu bere abileziak, agertokira igota. "Ile-apaintzaile profesionalak nire lana ezagutu nahi izateak harrotasunez betetzen nau".

Linea propioa

■ Laborategiz laborategi urteak igaro ditu Javier Jauregik produktu propioa garatzen. Hilabete gutxiaren buruan merkaturatuko du **Javier Jauregi** sinadurarekin bi xanpu, ile-egokitzailea eta gel batez osatutako produktu sorta. Jauregiren esanetan, "asko aldatu da higienearen kontzeptua. Sarri garbitzen dugu ilea eta soluzio azkarrak nahi ditugu, orraztu beharrik izan gabe. Hori kontuan izanda, merkaturako produktuak baino naturalagoak direnak lortu ditut". Aspalditik zuen "ametsa bete" du.✖



Zazpigarren artean lana egiteko ateara zabaldu zaizkio Jauregiri. "Gernika filmeko aktoreak orrazteko eskatu zidatenean urduri joan izan naiz lanera eta bezperan lo behar bezala egiten uzten ez zidaten kirioak izan ditut. Hainbeste urte lan honetan eta sentsazio eta ilusio horiek bizi-bizi izatea ederra da benetan!". Nieves Herrero kazetariaren nobela telebistara egokitu dute eta telesail horretako aktoreak orraztea ere berari eskaini zioten. "Halako lanetarako nirekin gogoratu izanak egundoko ilusioa sortzen dit".

Ile-apaintzaile bezala, eminentzia

Urte askoko lanaren, eskarmentuaren eta esperientziaren emaitza izan da gaur heldu den lekuraino iristea. Ile-apaintzaileen gremioan goren-mailara heldu den maisua da. Diziplina du bertute nagusia, eta bere jardunean pertsonalitate handiz lana egiten daki, disfrutatuz. Ile-apaintzaile bezala dituen "ezagutzak oztoporik eta beldurrik gabe" bere ikasleei transmititzen jakin du, eta urteetako harrobiko lan horri esker lortu du gaur egun duen hamar lagunek "talde sendoa" osatzea. Zilarrezko artaziak ez daitezela kamustu!✖

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Plax!	688 897 920
Iraurgi Berritzen	02 60 69
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturri Txiki ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko ludoteka	15 05 16
Gaztelekua/ GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-7-14-19-23-24-29
Eizagirre (Azpeitia).
943 811350

5-12-16-17-22-28
Alberdi (Azpeitia).
943 815974

LARRIALDIK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 27an izango dute
hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Udan: 08:30-14:00 **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



GAIKA BILTZEA XEDE.

Papera, errefuxa, ontzi arinak eta organikoa biltzeko edukiontzia jarri dituzte herriko kaleetan, lehen zeudenak kenduta. Gaika birziklatzeko kontzientzia ea hartzen duten herritarrek.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

4-9-10-15-21-27
Beristain (Azpeitia).
943 811949

GAUEZ, URTE OSOAN
Jacome (Azpeitia).
943 080258

2-3-8-11-18-26
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

6-13-20-25-30
Jacome (Azpeitia).
943 080258

AMETS CAÑIZARES

Salvador de Bahia, Brasil

“Milaka haur zagon kalean lanean, aurpegi tristeekin”

Unibertsitateko programa bat tarteko, Brasilen dago. Hegoamerika ezagutzeko abagunea ere baliatu du. 📌 Maialen Etxaniz

Nolatan hago Brasilen?

Unibertsitateko mugikortasun programa medio etorri nindunan, abuztuan. Paper guztiak zuzenduta eta hegaldia hartuta nituenean, baina, unibertsitatean greban hasi zirela abisatu zigutenan. Jende askok Euskal Herrian gelditzea erabaki zinan; bik aurrera egitea erabaki geninan, ordea.

Ordur geroztik, non ibili haiz?

Greba zela eta Brasil utzi eta Argentina eta Txile aldera jaitsi nindunan. Argentinako kanpin batean denbora dezente egin ninan lanean. Han, kalean janaria saltzen zuen lagun bat egin ninan eta geroztik elkarrekin ibili gaitun ogia, izozkiak... saltzen, bidaiatzeko sos batzuk lortzeko. Txilen bendimian ibili nindunan. Deigarria dun, hazia Txinatik iristen dun, Txilen landatu eta Ipar Amerikan saltzen dituen. Mahats hura bai dela bidaiaria!

Zer din Hegoamerikak Euskal Herriak ez duena?

Kaleko bizitasuna, duten energia positiboa eta paisaia natural izugarriak. Duten onena eskaintzen dituen beti. Egia dun urrun egonda horko lagunartea, mendia, itsasoa eta jende-

arekin harremanak eraikitze modua gehiago baloratzen direla.

Zer gustatu zain gutxiena?

Brasilen eta Bolivian ezkutuan mantendu nahi dituzten auzoetako egoerak. Salvadoren familia batekin bizi gindunan eta hura eromena hunan: ama lanik gabe depresioarekin, seme gaztea egunero hamar ordu lanean familia mantentzeko, seme txikieta bakarrik egun osoa... eta hori mila istorietatik bat besterik ez dun. Bestalde, milaka haur zagon kalean lanean, aurpegi tristeekin, jo lasteko ordua noiz iritsiko zain.

Zerbait botatzen al dun faltan?

Bai, noski. Lagunekin trago baten bueltan elkarriketa luzeak izatea, amamaren entsaldilla eta kroketak eta baita etxeko txikiak ere.

Zer moduz hizkuntzarekin?

Uste baino hobeto. Bertako familia batekin jarri gintunan bizitzen eta ohartzerako ederki defendatzen gintunan portugesez.


Itzultzeko asmorik ba al dun?

Batzuetan, hemen denbora luzez gelditzeko desira sentitzen dinat. Baina gutxien espero dudanean Azpeitian izango naun berriz.✘



1. Punoko (Peru) karnabaletan. Eskubikoa da Amets. 2./3. Eguzkia ez ezik elurra ere aurkitu du Hegoamerikarako bidaiari.

7.390 kilometrora dago Brasil.



atzetik eman zidatek!

1 936ko irailaren 20an erreke-teak Azpeitian sartu ziren eta gudariok Loiolatik alde egin genuen. Han zeuden presoei ateak ireki zitzaizkien eta kalera irten zuten. Jakinaren gainean zeuden erreke-teak Azpeititik hurre zeudela, eta haien bila jo zuten, baina, zoritxarrez, CNTko miliziano talde batekin topo egin zuten. preso egondako haie-tatik zazpi hartu, Iraetara eraman eta fusilatu egin zituzten. Askoz geroago, preso hartu gintuztenean, guk, Loiolako gudariok, hil ge-nituela zabaldu zuten bazterretan, nahiz eta testiguak ere bageneuzkan, gu ez ginela izan.

Irailaren 20ko egun hartan, goizeko hamai-kak aldera, Beizamako Joxe Mari Goenaga-ren autobus batean abiatu ginen Zestoa al-dera (...) Zestoatik Mutrikura joan ginen, eta han, Gure Ametsa tabernan, gure aita eta nire anaia Joxe topatu nituen. Iluntzean Baio-nara irteteko zen itsasontzian joateko ze-rrendan zeuden. Hura zorakeria! Nahaste-borraste ikaragarria zegoen, alde egin nahi zuten denek, eta itsasontzi hartan ez ziren denak sartzen. Ontzigaina jendez gainezka zegoen, eta patrioiak eskatu hainbestetxe pa-gatzen zuten. Bidaia hura, hala ere, arriskuz betea zegoen, Francoren ontziek ere itsasal-de hura etengabe patruilatzen zutelako. Ni Mutrikun bertan geratu nintzen, lehorrean, beste zenbait azpeitiar gudarirekin batera. Handik Lekeitiora joan ginen, eta hantxe eman genuen gaua. Artean ez genekien non osatuko ote zen batailoia.

Azkenean, dena dela, Gernikan bilduko gi-nela erabaki zuten agintariek, eta Loiola Ba-tailoia osatu zen han, Euskadiko lehenengo batailoia! Agustinoen komentuan jarri ginen lehenengo, eta Mesedetako komentuan, Gernikako Erretereria auzoan. Beste batailo-i bat ere osatu zen han, gipuzkoarra: Itxarkun-dia. Azpeitiarrik bazen Itxarkundian. Esate baterako, han ziren Jexux Urbietza Buenavista tenientea eta Joxe Uranga Azillarri, andazai-



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Lehertzeko bala tiratu
zioten, sartu zen lekuan zulo
txikia egin zion, baina irten
zen parean zulokote handia

na. Urriko lehen egunak ziren (...) Guk Otxan-dio-Legution geneukan gerra frentea. Hama-bost egun frentean egiten genuen eta, ondo-ren, astebeteko baimena ematen ziguten. Azaroaren 30ean hasi zen gure erasoa alder-di hartan, eta emaitza benetan tragikoa izan genuen, egunsentian, erasoa hasi orduko, kapitaina hil ziguten eta: Isidro Andonegi zen. Izan ere, Legutioko eliza dorrean metrai-ladorea jarri zuten, eta hainbat baja izan geni-tuen.


Penagarri pasatu genuen gaua, euripean. Hantxe hil zuten nirekin batera zegoen azpei-tiar bat, Joxe Urbietza Mandiolatza. Bala batek jo zuen, eta esan zidan: "Loinaz, atzetik eman zidatek!". Lehertzeko bala tiratu zioten, sartu zen lekuan zulo txikia egin zion, baina irten zen parean zulokote handia. Erantzi genuen, zulokotea ikusi genion, andazainak etorri eta eraman egin zuten.

Alferrik, bereha-laxe hil zen Mandiolatza. "Loinaz, atze-tik eman zida-tek!"».

(Antonio Loinaz Etxani-zen Nire oroi-tzapenak libu-rutik euskarara ekarria).✕



%21 igo dira Uztarria.eus-eko bisitak 2015ean



Inoizko daturik onenak izan ditu Uztarria.eus-ek 2015ean; izan ere, 1.210.320 bisita izan ditu, **2014. urtean** baino %21 gehiago. Erakutsitako orri kopurua ere hazi egin da eta ia 3 milioi orri erakustera igaro da: 2.898.734, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du egunero-egunero, batz bestea, 3.300 bisita izaten direla eta ia 8.000 orri erakusten direla.

ESKELA ZERBITZUA



Carmona Ehorztetxea
Pablo VI, 7
Asteko egun guztietan
24 orduko zerbitzua

Telf: 943 15 15 14
Mobila: 629 43 42 67

30€



Uztarria
Perez Arregi 1, behea
Astelehenetik ostiralera,
09:15-13:15
15:00-19:00

Telf: 943 15 03 58

Komunitatea



Di-da!
2015-09-25 10:48

Azpeitian grabatutako 'Aitaren Etxea' telesaila irailaren 30ean estreinatuko dute

Telesailaren zenbait atal Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoan grabatu zituzten joan den uztaillean. Telesaila datorren asteazkenetik aurrera ikusi ahal izango da ETB1en.

» Segi irakurtzen

» Komunitateko gehiago

Agenda

Azken ostirala
gaur | 19:00

Dantza: 'Solasean'
gaur | 21:30

Kontzertua: Laket
bihar

» Ekitaldi gehiago

Hilberriak



XXXXX XXXXX XXXXX
2015eko ren ean hil zen, urte zituela.
Helbidea: » 2 eskola



XXXXX XXXXX XXXXX
2015eko ren ean hil zen, urte zituela.
Helbidea: » 2 eskola

Eguraldia

Gaur
Ostirala
09-25



Max: 21°C
Min: 9°C

Bihar
Larunbata
09-26



Max: 20°C
Min: 10°C

Etzi
Igandea
09-27



Max: 19°C
Min: 10°C

» Egun eta datu gehiago | AEMET-ek emaniko informazioa

Hilberrien informazioa eta eskela zerbitzua martxan Uztarria.eus-en

Uztarria.eus | 2014-12-18 : 15:40 | **UZZARRIAEUS**

Herrian hiltzen diren guztien berri emango dugu Uztarria.eus webgunean, portada nagusiko eskubiko zutabean eta **Zerbitzuen atalean**. Hala nahi dutenek, eskelak ere jarri ahal izango dituzte webgune honetan. Carmona ehorztetxearekin elkarlanean abiatu du zerbitzu berria Uztarriak

aurtolanean hitza hartu

HERRI GALDEKETA ANTOLATZEKO
BILKURA IREKIA

Apirilak 16, larunbata
11:30ean Soreasu antzokian

